



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 25ean

4 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Alesbesko Eskudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Euskarazko irratientzako erreserba egitea galarazten duten legeei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Frekuentziak Onda Cero eta Radio Top emisoreei esleitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Tafalla Ostatura eta haren ondoan dagoen gasolindegira iristeko bideari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta Volkswagen multinazionalak langileen inguruan hartu dituzten konpromisoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” kontusailaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- NMEZ eta mahastiak birlandatzeko eskubideak dituzten nekazarien datuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Iratxeko Monastegiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Sindikatuak joan-etorri eta dietengatik dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Lehen Infanta Elena zentroa kudeatzen zuen GESNA, S.A. enpresari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Ekialdeko Ingurubideko istripu-kopurua jaisteko hartu beharreko neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Diruz lagunduriko okupaziozko zentroek ezintasuna eta erantsitako desoreka psikikoak dituzten pertsonak zaintzeko dituzten baliabideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Artaizko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegia buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1996 eta 1997 urteetan aldi baterako kontraturik egon diren personoren kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin kontraturiko oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Errezetak euskaraz eta gazteleraz emateko ekimenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Nafarroan ezarri nahi den espetxe ereduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Etxabakoitz Iparreko osasun-egoerari buruz eta Barañaingo osasunetxea gainezka egoteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Espainiakako Estatutik kanpo diren Nafar Bilguneei ematen zaizkien dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Alesbesko Eskudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Alesbesko Eskudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu diren konponbideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Alesbesko Eskudera putzuko ura bere maila naturalean jartzeko hartu den konponbideari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zertan dautza hasi diren lanak? Zer aurrekontu dute? Horiek noiz bukatzea aurreikusten da?

Azaroaren hasieran hasi ziren lanak funtsean 1.000.000 m³ ur husteko hainbat ponpaketaren burutzean dautza, gutxi gora-behera 3 hilabeteko epean, aldi berean eta mailen eta emarien kontrolaren bidez, garatutako akuiferoko putzuaren ezaugarri hidrologiko-hidogeologikoen azterketa zehatzagoa eginez.

Lan hauetatik lortutako informazioaren ondorioz, “putzuaren” funtzionamendu hidrologikokoari buruzko aurreikuspena egingen da; horrek saneamendu-sistema egokiena ezartzea ahalbidetuko du, inguruko problematika berezia kontuan izanda.

Aldez aurretik, izaera hidrologikoko eta euri-erregimenari buruz zegoen informazioaren bilketari ekin zitzaion, bai eta arro endorreikorako ur-ekarpenen identifikazio koalitatiboari ere. Ondoren, mailak kontrolatzeko mekanismoen, limnigrafoen eta piezometroen (11 unitate) instalazioari ekin zitzaion; horiek, lortutako datuak aztertu ondoren, argigarriak gerta daitezke isurki nagusiak eta dauden lurrazpiko uren metatzearen aldeak ezagutzeko.

Hori guztia burutu ondoren, ur metatuak husteko ponpaketei ekin zitzaion; aipatu ponpaketak nahi den informazio-helburua kontua izanda antolatatu ziren ur-emariak eta denborak. Ponpaketen zehar ur-mailen bilakaera kontrolatu zen, bai ureztatuko alderdiarena bai egindako piezometroetan ere.

Ponpaketa-sistemak zonan dauden eraldaketa zentroetarako konexioa duten 5 ponpa ditu. Ponpa bakoitzaren ponpaketa-emaria 70-100 l/s da gutxi gora-behera, eta altuera manumetrikoa 20-25 metrokoa. Guztirako emaria 400 l/s inguru dela uste da. Ura Agua Saladako errekarara husten da, izen bereko ENSren ureztatze-sarearen bidez.

Ponpaketa amaitu ondoren, urtarrilean zehar, txosten bat egingen da, eta bertan ponpaketan zehar izandako gertakari guztiak, ponpaketaren beraren bilakaera, bildutako mailei buruzko datuen interpretazioa eta ezaugarri hidrologikoei eta akuiferoaren funtzionamenduari buruz lortutako ondorioak adieraziko dira; horrek guztiak etorkizunean akuiferoaren portaeraren aurreikuspen-hipotesiak ezartzea ahalbidetuko du. Une horretan, beharrezkotzat hartzen diren kontrolneurriak gomendatu ahal izanen dira, bai eta arazoari behin-betiko konponbide iraunkorra lortzeko hartu beharreko neurriak proposatu ere.

Lanen guztirako kostua, Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren urriaren 10eko 2953/97 Ebazpenak baimendua, 17.748.000 pta. da.

2. Lan hauek behin betiko konponduko al dute La Escudera putzuko arazoa? Zer sistema aurreikusi da aipatu putzuko uraren maila egonkor mantentzeko?

Aurreko puntuan adierazi denez, uneko lanetatik lortutako ondorioek behin-behineko konponbidea antolatzea ahalbidetuko dute; konponbidea drenaje-sistema bat, ponpaketa-estazio bat edo hainbat, edo bi sistemak bateratzea izan daiteke. Hori guztia, ureztatzearen eraginkortasuna hobetzeari lotuta.

3. Morante izeneko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak eta Alesbeko Udalak azkenik hartutako erabakiaren bilaketan parte hartu al dute, edo parte hartzea aurreikusten al da? Zein heine-tan? Zer kosturekin?

Gaur egungo lanak antolatu eta burutzeko harreman eta bilkura ugari izan ditugu Alesbeko Udalarekin, inguruko Eraldaketarako Nekazaritza

Sozietateekin eta Alesbeko Ureztatzaileen Komunitatearekin, bai eta ukitutako guztiekin ere, oro har.

Uneko lanak Agua Salada Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak ureztatze-sarearen hodiak xukatutako ura husteko bide gisa behin-behinekoz erabiltzeko emandako baimenari eta zenbait partikularrek instalatutako ponpak elikatze beren sare elektrikoa erabiltzeko emandako baimenari esker burutu ahal izan dira.

Modu berean ekinen zaio behin betiko konponbidea proposatzeko garaian.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentze-ari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro eraginak zuzentze-ari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du aire bidezko elektrizitate-hariek sorturiko ingurugiro-eraginak zuzentze-ari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuaren eta elektrizitate-entresen arteko lankidetzahitzarmenaren akordioak hasi zirenetik, zenbateko diru-kopurua era-

bili da urteko elektrizitate-hariek sortutako kalteak zuzentzeko?

Nafarroako Gobernuaren eta Iberdrola elektrizitate-hornidurako enpresaren arteko lankidetzahitzarmenak hasi zirenetik elektrizitate-hariek sortutako kalteak zuzentzeko erabilitako diru-kopurua 936.200.937 pta. da. Zehaztutako xehetasunak I. taulan ikus daitezke.

Sinatutako lankidetzahitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak gastuen % 75eko dirulaguntza ematen du. Elektrizitate-entresak gainerako % 25 jartzen du.

Nafarroako Gobernuak jartzen duen diru-kopuruaren % 50 Europako Elkarteari dagokio FEOGA-O programaren bidez, hegazti-faunaren gaineko eraginen zuzentzeko 5b helburuko zonetan egiten direnean. Era berean, EEK % 60-75eko dirulaguntza eskaintzen du LIFE programaren bidez hegazti-faunaren gaineko eraginen zuzentzeko Bonelli arranoa eta ugatza, hurrenez hurren, bizi diren zonetan egiten direnean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Red Eléctrica Española erakundeak Orkoien-Cordovilla goi-tentsioko lerroa aldatzea hitzartu dute Bara-

ñaingo hirigunea ukitzea saihestearren, 268.000.000 pta.ko aurrekontuarekin eta 1997 eta 1999 artean burutzeko.

2. Zein da ingurugiro kalitatea hobetzeko lanak egin daitezkeen elektrizitate-instalazioen zerrenda, xehe-mehe? Horietako bakoitzean egiteko diren jarduketek zenbateko aurrekontua behar dute eta noiz hasiko eta noiz bukatuko dira?

Nafarroako Gobernuak 1998an hasi zen Iberdrola enpresarekin akordioak egiten, izan ere enpresa hori baita Nafarroan argindarraren banatzaile nagusia. Zuzenketak-jarduketak programatzeko ondoko idaztiak ezarri ziren; A) ingurugiro-eragin orokorrak sortzen dituzten instalazio elektrikoak (landarediari, lorategiei, eskola-patioei, oraingoz urbanizatzea ez dagokien lekuei, paisajeari eta abar dagozkionak). Idazti honetarako 54 inbentario-fitxa prestatu ziren hasiera batean, beste zenbait alderdi II. eta III. tauletan adierazten den bezala zehaztuz. Gaur egun inbentario-fitxak eguneratzen ari dira. Lehen hurbilketa batean, 123 fitxa dira, bi mila milioitik gorako aurrekontuarekin. B idaztitan hegazti-faunan eragina duten hariak barne hartu ziren. Elektrokutatze elementurik arriskutsuenak antzematen zituzten azterlanak egin ondoren, Nafarroako banaketako hari-elektriko guztien zerrenda orokorra prestatu zen, luzeraren arabera hiru mailatan sailkatuz: oso arriskutsuak, arriskutsuak eta ez horren arriskutsuak. Ikus IV. taula.

B) idaztitan barne hartzen diren hariak urtero zehaztea eskatzen dute, izan ere horien arteko gehienetarako ondokoa egiten baita: balizko zuzenketaren aurreko animalia elektrokutatuei buruzko datu-bilketa, zuzenketetarako lehentasun-ematea eta ondoko jarraipena eraginkortasuna kontrastatzeko.

3. Aurreko zerrendatik: zein elektrizitate-harik ukitzen dute hiriguneren bat? zein da horietako bakoitzaren zenbatespena?

Oro har, A) idaztitan barne hartutakoak dira. II. eta III. taulan beste zenbait xehetasun adierazten dira.

4. 2. galderan emandako zerrendatik: zein elektrizitate lerro daude landa ingurunean? zer nolako eragina (paisajea, hegazti fauna edo bietan) du horietako bakoitzak eta zein da eragin horren zenbatespena?

Oro har, B) idaztitan barne hartutakoak dira, ia esklusiboki hegazti-faunan eraginak dituztenei dagozkienak, hain zuzen ere.

5. Aipaturiko lehentasun irizpideei jarraituz: zein dira 1998an burutzeko aurrekusi diren jarduketak-proiektuak? Kasu bakoitzerako aurrekontuetan aurrekusi edo burutu den kostua

1997an aldatutako lerroak 1. taulako A eta B idaztietan adierazita daude.

Taula berean izaera orientagarriarekin adierazten diren hasierako aurreikuspen ekonomikoak duten eta 1998an burutu beharreko proiektuak urte hasieran erabakiko dira, Iberdrolarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenean hitzartutakoaren arabera, ondokoetatik eratorritako lehentasunak kontuan izanda:

a.- Jarduketa-inbentarioaren ezarritako edo aldatutako lehentasunak.

b.- Paisaia eta hegazti-fauna izandako eraginei buruzko azterlanetatik ondorioztatutako eskakizunak.

c.- Udal-eskaerak eta ustekabeak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu koadroak Foru Parlamentariaren esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Euskarazko irratientzako erreserba egitea galarazten duten legeei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak Euskarazko irratientzako erreserba egitea galarazten duten legeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak galdera egin du euskarazko irratientzako erreserba egitea galarazten duten legeei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zeintzuk dira euskarazko irratientzat lizentzien erreserba egitea galarazten duten legeak. Hau da Gobernuaren erabakia irizpide juridikoetan ala bakarrik irizpide politikoetan oinarritu al da?

Telekomunikazioen Antolamendu Legeak frekuentzia-modulaziodun uhin metrikoetako irratidifusio soinuduneko emakidak komunikabide sozialen arloan eskudunak diren Autonomia Erkidegoek –Nafarroako Foru Komunitateak, kasu honetan– emanen dituztela xedatzen du. Horretarako, Estatuak, Frekuentzia Modulaziodun Uhin Metrikoetako Irrati-difusio Soinuduneko Plan Tekniko Nazionalaren bidez, zenbait emisore utzi ditu Foru Komunitatearen esku Foru Komunitateak berak emakidak egin ditzan. Agindu horietan ez da ezer zehazten euskarazko emisoreak erreser-

batzeko aukerari buruz, eta horrenbestez, ez dago berariazko debekurik gai horri dagokionez. Administrazio-emakida denez, administrazio-kontratazioaren printzipioen menpe egonen da, gainerako guztiak bezala: publizitatea, konkurrentzia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, alegia. Nafarroako Gobernuak, politika orokorra ezartzen duen organoa denez, horrelako irizpideen arabera hartzen ditu bere erabakiak: bere irizpideen barruan euskaraz emititzea positiboki baloratuta dago, eta programazioko baldintza eta baldintza tekniko eta ekonomiko berdinetan hizkuntz horretan emititzen duen proposamena izanen litzateke esleipenduna, hain zuzen ere.

2. 1990ean euskara baloratu al zen banaketa egiteko momentuan? Eta horrela izan bazen (Elizondoko lizentziaren kasuan) zein den gaur egun euskaraz egiten den programazioa?

Erreferentziatzko espedientean ez dago jasota emakidatutako emisoreetan euskararen erabilera espreski baloratu zenik.

3. Kontuan hartuz Iruñerrian emititzen ari diren irradi guztien programazio ia guztia gaztelaniaz dela, ez al da aski frogaturik geratzen euskarazko programazioa bermatzen ahal duen irradi bakarria euskaraz emititzen duen irratia dela?

Argi dago euskarazko programazioa bermatu dezakeen emisorea hizkuntz horretan emititzen duena dela, jakina.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
Jose Ignacio Placios Zuasti

Frekuentziak Onda Cero eta Radio Top emisoreei esleitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Frekuentziak Onda Cero eta Radio Top emisoreei esleitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren jaunak galdera egin du Radio Blanca (89,3) eta Compañía Navarra de Radiodifusión (99,2) esleitzeari eta banda batean Onda Cero eta bestean Radio Top entzuteko arrazoiari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da banda batean onda Cero eta bestean Radio Top entzuteko azalpena?

Irrati-emisoreen artean ohikoak dira beste entitateetako nazio-mailako kateak, esate baterako irrati-programak hartzeko eta emititzeko akordioak, beste entitate horien bereizgarripean emitituz. Honela, Radio Blanca S.A.k Onda Cero Irrati Katearen titularra den UNIPREX S.A.rekin hitzarmena sinatu zuen 1992ko urtarrilaren 12an, adierazitako kateak produzitutako estatu-esparruko programazioa Iruñeko emisorearen bidez bereizgarri horren pean emititu ahal izateko. Antzekoa da Radio Top-en bereizgarripean emititzen duen Compañía Navarra de Radiodifusión S.A. emisorearen egoera. Adierazitako akordioek emakidaren titulartasunaren transferentzia ez eta emakidadunen akzioena ere ez dakartela kontuan izanda, ez daude Administrazioaren alde aurreko baimenaren menpe, eta horrenbestez emakidadunak adierazitako baimenaren menpe egoteko obligazioak betetzeari ez zaio utzi, kasu honetan.

2.- Akzioen eskualdaketa ere izan al da bi irratiotan? Hala bada, zer baimenarekin?

Erreferentziazko espedienteetan azaltzen diren datuen arabera, adierazitako irrati-emisoreen emakidadunen akzio-transferentzia bakarra izan da. Adierazitako transferentzia Lehendakari-tza Kontseilariaren apirilaren 6ko 44/1995 Foru

Aginduak baimendu zuen eta transferentzia ondo-koa zen: 1.000 akzio Radio Blanca S.A.tik Radio Antena Sur-era eta 1.000 akzio Radio Blanca S.A.tik Radio Sur 2000, S.A.ra.

3.- Egindako esleipenak eta errealitateak inola-ko antzik ez dutenez, komenigarri da jakitea: zer jarraipen izan da lehiaketan lortu nahi ziren helburu eta xedeak betetzeari buruz?

Administrazioak zerbitzu publikoen edozein kudeaketa-emakidari dagokion jarraipena egin du, eta ez du adierazitako lehiaketaren menpeko kontratuei buruzko xedeen ez betetzerik antzeman.

4.- Zer bide ezarri da haiek kontrolatzeko? eta zein da emakidaren arrazoiaren, esleipenaren arrazoiaren eta benetako funtzionamenduaren arteko harremana?

Ezarritako kontrolatzeko bideak edozein zerbitzu publikoren kudeaketa-kontraturari dagozkionak dira, eta Kontratuen Foru Legearen 71.3 artikuluan azaltzen diren polizia-ahalmenetan eta Nafarroako Foru Komunitateko frekuentzia-modulaziodun emisoreetako emakiden araubidea erregulatzeko duen 37/1990 Foru Dekretuaren 11. eta 12. artikuluetan ezarritako erregimen zigor araubideari buruzko Foru Komunitatearen eskumenekoak diren ikuskaritza-ahalmenetan zehazten dira. Emakiden esleipenaren arrazoiaren eta haien funtzionamenduaren arteko erlazioa baliozkotzat har daiteke, izan ere, adierazitako arrazoiak, espedienteetan azaltzen diren txostenen arabera, ondoko argudioa barne hartzen baitzuen; positiboki baloratu dira gaur egun Nafarroan ezarpenik ez duen nazio-esparruko kate baten barruan beren Iruñeko emisorea sartu nahi duten enpresek aurkeztutako proiektuak. Horrela, Iruñerriko entzuleei nazio-mailako programaziorako sarbidea izateko aukera ahalbidetuko zaie". Horrenbestez, emandako emisoreak nazio-mailako kate baten programazioa emititzea esleipenaren arrazoiarekin bat dator, hain zuzen ere.

5. Zer balorazio egiten da Onda Cero eta Radio Topek azken urteotako eta gaur egungo emisioetan esleipenaren zioak eta helburuak betetzeari buruz?

Arestian azaldu dugu adierazitako emisoreek nazio-esparruko kateen programazioa emititzea esleipenaren arrazoiarekin bat datorrela, hain zuzen ere.

6. Noiz jarri ziren martxan Onda Cero eta Radio Top emisoreak, akzioak eskualdatu ziren datarekin konparatuta, halakorik gertatu bada, edo horrekin konparatu gabe, edonola ere?

Radio Blanca S.A.ri emandako emisoreak 1992ko urriaz geroztik emititzen du Onda Ceroren bereizgarriean eta Compañía Navarra de Radio-difusión-i emandakoa 1992ko udaz geroztik, Radio Top-en bereizgarriean.

7. Aipatu emisoretan zer tarte eta denbora ematen zaio emisoraren beraren eta toki ekinbideko programazioari, bere horretan hartuta, eta Nafarroako balioak nazio-mailan hedatzearekin konparatuta?

Bi emisoreek bertan produzitutako eta izaera eta iraupen desberdineko informazio-programak, kirol-programak, magazinak eta abar emititzen dituzte; emisio hauek bertako esparruari zuzenduta daude eta ez Nafarroaren balioak nazio-mailan hedatzeari.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
Jose Ignacio Palacios Zuasti

Tafalla Ostatura eta haren ondoan dagoen gasolindegira iristeko bideari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Tafalla Ostatura eta haren ondoan dagoen gasolindegira iristeko bideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak galdera egin du Tafalla Ostatuaren inguruko N-121 errepideko seinalezta-pen horizontalaren aldaketari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Galdetu al zaie zerikusituz zuzena dutenei (Tafalla ostaturako eta gasolindegiko langileei) neurri hori hartu denean, haien interesei eta zerbitzuen erabiltzaileenei kalte egiten baitie? La Nava industrialdeko enpresetako langileak ere sartu behar dira zerbitzuen erabiltzaileen artean.

Ez zaie galdetu. Dena den, Tafalla Ostaturako sarbidea biratzeko berriazko bidea duen NA-115

errepideak (Tafalla-Rincón del Soto) bermatzen du, ibilgailuek Tuterata-Tafalla erreian gelditu beharrik izan ez dezaten ezkerretara biratzeko; puntu horretan gelditu beharrik izan eragin dituzten arte.

N-121 errepideak bidegune horretan duen eguneko batezbesteko intentsitatea 12.480 ibilgailu/egun da, eta % 22,5 ibilgailu astunak dira; NA-115 errepideak aldiz, 3.341 ibilgailu/egun besterik ez ditu eta % 11,5 dira ibilgailu astunak.

Adierazitakoaren arabera, Tafalla Ostaturako langileei eta erabiltzaileei kalterik eragiten ez zaie la uste dugu, eta aldi berean, zonako bide-segurtasuna nabarmen hobetzen da.

“Gasolindegia” dagokionez, ekainaren 5eko 130/1996 eta maiatzaren 12ko 128/1997 Foru Dekretuen arabera, 5.000 ibilgailu/egun neurriko eguneko batezbesteko intentsitatea (EBI) gainditzuten duten errepideetan debekatuta dago ezkerretarako biraketaren bidezko sarbidea. Horrenbestez, egindako jarduketaren ondorioz, sarbidea adierazitako Foru Dekretuetan hitzartutakoari egokitzen zaio.

Hortaz gain, hornitegiko jabea Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentu honekin harremanetan jarri zela jakinarazten dizut eta errepidearen beste aldean hornitegi berria jartzeko baimena eskatzeko duen asmoa adierazi zizun.

2. Behin-behineko irtenbidea da ala beste irtenbide hobe baterako aurreko azterketa?

Hasieran behintzat, behin betiko irtenbidea da.

3. Zerbitzu horien aurrean egin al daiteke "belarri" edo bidea handitzea, errepidea destoletu beharko litzatekeen zatiak metro gutxi baititu (hogei metrora dago-eta)?

Teknikoki ezinezkoa da errepidean ezkerretara biratzeko erreirik egitea, Erriberriko irteeraren azelerazio-erreia eta NA-115 errepidera sartzeko ezkerretarako biraketaren dezelerazio-erreia oso hurbil baitaude.

Argudio hau baliagarria da era berean galdeztzaileak "belarri" bat egiteari buruz planteatzen

duenerako: eta gainera, horrela eginen balitz, hornitegira eta Tafalla Ostatura sartuko zen trafikoak 12.480 ibilgailu/egun neurriko EBI duen 13.000 ibilgailu/ordu neurrikoa intentsitate goreneko orduetan— errepide bateko hiru errei gurutzatu beharko litzuzke, eta horrek oso arriskutsu bihurtuko luke gurutzegunea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 4an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
Jose Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroako Gobernuak eta Volkswagen multinazionalak langileen inguruan hartu dituzten konpromisoak buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak eta Volkswagen multinazionalak langileen inguruan hartu dituzten konpromisoak buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak eta Volkswagen multinazionalak langileen inguruan hartu dituzten konpromisoak buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluari jarraituz, hona hemen Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren erantzuna:

1. VW multinazionalarekin elkarriketa bat izateko Alemaniako Wolsburg hirira egin berri den bisitaldian, zein konpromiso hartu berri dira Nafarroako Gobernu gisa lan harremanen arloan?

Nafarroako Gobernuak ez da nahasten enpresei beraiei dagozkien erabakietan eta ez du inolako konpromisorik hartu lan-harremanen arloan.

2. Uste al du Gobernuko Lehendakariak Lan Hitzarmen Kolektiboa sinatu aurretik VW multinazionalak jarraibide giltzarriak ezarri nahi izan dituela VW-Nafarroako sindikatuetakoa ordezkariek ontzat har ditzaten?

Lan Hitzarmen Kolektiboa zuzendaritzaren eta enpresako sindikatuetakoa ordezkaritzaren arteko akordioari dagokio. Nafarroako Gobernuak ezin du eta ez du nahi adierazitako negoziazio- eta akordio-prozesua baloratu.

3. Gobernuko Lehendakariak malgutasunaz hitz egiten duenean, enplegua sortzeko modu bat dela uste al du?

Hala da, malgutasunaz hitz egitean lanaren antolamendu-modu batez hitz egiten ari gara; antolamendu hori aplikatzen den erakundeen produktio eta lanerako egituraren arabera, enplegu garbia sortzeko aukera egon daiteke.

4. Nafarroako Gobernuaren aldetik, aurretiaz bileraren bat izan al du VW-Nafarroako enpresako komitearekin?

Nafarroako Gobernuak oro har eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak bereziki, harreman ugari izaten ditu Volkswagen-

Nafarroako enpresako komitearekin, bai eta hala eskatzen duen Nafarroako beste edozein enpresarekin ere.

5. Azkenik, zein dira oraingoan VWri eskaini zaizkion neurri fiskalak?

Nafarroako Gobernuak industria-jardueretan inbertitzeko gure Komunitateak dituen abantailak

eskaintzen dizkie enpresa guztiei, indarrean dagoen legeria fiskalaren barruan daudenak, hain zuzen ere.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

“Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” kontusailaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” kontusailaren aurrekontu betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inmaculada Matias Angulo Foru Parlamentari andreak galdera egin du “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” kontusailaren betetzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Galderari dagozkion udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak kontusaila zuzendu zaizkieneko kontzeptuak eta lekuak (Udalak, Kontzejuak,..)

KONTZEPTUA	UDALA, KONTZEJUA	AURREKONTUKO ZENBATEKOA	%	DIRUZ LAGUNDUTAKO ZENBATEKOA
I. P. eraikitzeako obretako zuzendaritza lansariak	BARASOAIN	540.000	100	540.000
Aldagelak eraikitzea	SAN ADRIAN	14.635.857	100	14.635.857
Ikastetxe Publikoa zabaltzea	AGOITZ	26.496.511	80	21.197.208
Eraikina zabaldu, aldagelak eta eskaileraren estaldura	BERRIOZAR	28.000.000	80	22.400.000
Aldagelak eta gimnasioa berritzea	DONEZTEBE	2.898.782	80	2.319.026
Bi gela egitea	ULTZAMA	7.000.000	80	5.600.000
Instalazio elektrikoa ordezteak	ABLITAS	1.504.589	70	1.053.212
Portxe estaliaren 1. fasea	ALTSASU	12.857.143	70	9.000.000
Gela egokitzea	AÑORBE	500.000	70	350.000
Gela egokitzerakoan sorturiko ezusteak		450.000	70	315.000
I.P. margotzea		343.118	70	240.183
Berogailuak aldatzea, 2. fasea	ARANTZA	3.207.612	70	2.245.328
Lehengo dirulaguntza handitzea	ARESO	2.516.343	70	1.761.440
I.P.ko pertsianak ordezteak.	AZAGRA	619.906	70	433.934
Alaitz I.P.ko portxea egitea	BARAÑAIN	10.455.225	70	7.318.657
	BAZTAN			

KONTZEPTUA	UDALA, KONTZEJUA	AURREKONTUKO ZENBATEKOA	%	DIRUZ LAGUNDUTAKO ZENBATEKOA
I.P.aren inguruko hesia berritzea	(ELIZONDO)	1.562.749	70	1.093.924
I.P.ko jangelaren estaldura ordeztea	(AMAIUR)	2.373.503	70	1.661.452
Iturgintzako konponketak	BEINTZA-LABAIEN	290.348	70	203.244
Haur parkea berritzea, pertsianak ordeztea, biltegiko zorua konpontzea, berogailuetako balbulak aldatzea	BERA	1.465.432	70	1.025.802
Elektrizitateko faktura, ordaindu gabekoa	BETELU	1.581.429	70	1.107.000
Zenbait konponketa lkastetxean	BUÑUEL	2.700.532	70	1.890.372
Haurrentzako patioa	CORELLA	1.800.000	70	1.260.000
Estalduaren euskarriak, lehioak konpontzea, kanpoko hesiaren pinturas, patioa sartzeko lurzorua eta espaloiak konpontzea	ETXARRI ARANATZ	6.123.060	70	4.286.142
Berokuntza sistema aldatzea	GOIZUETA	5.000.000	70	3.500.000
Kortxoak jartzea	LEZAUN	597.949	70	418.564
Portxe estalia eraikitzea	LEITZA	4.674.055	70	3.271.838
Kanpoko zokaloan dauden hezeguneak konpontzea	LODOSA	1.150.000	70	805.000
Hareatza,atea lekuz aldatzea eta portxeko esitaldura	MARCILLA	1.800.000	70	1.260.000
Gelak zabaltzea	NARBARTE	3.084.742	70	2.159.319
Patioan zorua jartzea	OBANOS	5.462.131	70	3.823.492
Aldagelak konpontzea	OTSAGI	4.462.823	70	3.123.976
Zehaztu gabeko zur-lanak, suteen aurkako instalazioa, ,atea, eskailera, baranda, I.P.ko kiroldegiko estaldura eta berokuntza sisteman konponketak egitea.	ERRIBERRI	972.778	70	680.944
I.P.ko estaldura konpontzea	ORKOEN	1.611.205	70	1.127.843
Kanpaindorrea bota eta teilatua konpontzea	SAN MARTIN UNX	680.377	70	476.264
Berokuntza galdara ordeztea		423.400	70	296.380
Patioko zorua konpontzea. Zorua konpontzea pilotalekua eta lansariak	ZANGOZA	4.994.861	70	3.496.403
Zorua jartzean sorturiko ezustekoa		1.428.639	70	1.000.047
I.P.ko teilatu-hegala konpontzea	ZUGARRAMURDI	1.966.316	70	1.376.421
Eskolako gimnasioa eraikitzea	CASCANTE			19.000.000

2. 945.728 pta.ko diru-kopurua dago erabiltzeko.

3. Inbertsio Zerbitzuak ez du inolako jarduketa zehatzik aurreikusi aurtengo 1997ko ekitaldi ekonomikorako. 945.728 pta.ko soberakina –burutu ezin ahal izanen dena, horretarako dagokion denboraz kanpo (ekitaldiaren amaiera) egonagatik– Cascanteko Udalarari emandako diru-

laguntzaren kasuan izandako inguruabar bereziei zor zaio.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesus Javier Marcotegui Ros

NMEZ eta mahastiak birlandatzeko eskubideak dituzten nekazarien datuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak NMEZ eta mahastiak birlandatzeko eskubideak dituzten nekazarien datuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak galdera egin du mahastiak birlandatzeko eskubideak dituzten nekazarien datuei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

NMEZ (Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa) da Nafarroako mahasti-katastroa –Nafarroa eta Errioxa Jatorri Izendapenetan barne hartutako produkzio-eskualdeari dagokiona, alegia– bere eskuetan daukan, kontrolatzen duen eta mantentzen duen erakunde ofiziala. Laborantzako mahasti-lurzatiak eta birlandatzeko eskubidea indarrean mantentzen dutenak biltzen dituen katastroa etengabe eguneratzen da, eta horretarako lankidetzeta eta koordinazio iraunkorren dago Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuarekin eta Nafarroa eta Errioxako Kontseilu Erregulatuzaileekin. Xede horretarako, NMEZk badu informazio-bulego bat Katastrorako aldaketak aurkezten dituzten titularentzat; bertan, birlandatzeko dituzten eskubideen iraungitzeari buruz aholkatzen zaie, Nafarroako mahasti-azalera mantendu ahal izateko.

Ildo honetan, Mahasti-Katastroaren datuak ematen zaizkien beste zenbait administrazio-era-

kunderekin harremanak ditu; ondokoekin, hain zuzen ere:

MAPAren Nekazaritzako eta Ekoizpen eta Merkatuen Zuzendaritza Nagusia. Mahastizaintza eta Ardogintzako Zuzendariordetza Nagusia.

Nafarroa Jatorri Izendapenaren Kontseilu Erregulatuzailea

Errioxa Jatorri Izendapenaren Kontseilu Erregulatuzailea

Mahastiak dituzten Tokiko Nekazaritza Ganbarak

Tokiko Ganbarek informazio-lanetan eta birlandatu eta ateratzeko eskabideen izapidetze-lanetan eskaintzen diote laguntza NMEZri, eta haien dira, NMEZren derrigorrezko gainbegiraketa dela medio, birlandatzeko eskubideei eta hauen indarraldiari buruzko informazio-organo zuzenenak. Horretarako, Mahasti-katastro eguneratuaren dagokion dokumentazioa ematen zaie aldian behingoz.

NMEZk ez die inoiz ere dokumentazio edo informaziorik eskaintzen erakunde, entitate edo partikularrei eta ondokoa gogorarazi nahiko nuke; jaun horrek jakinen duenez, Zuzenbide Estatu batean edozein hiritarrek edozein publizitate-iragarki egiteko eskubidea du, eta horrek ez du esan nahi bertan adierazten dena egia denik, eta araz kontrako edozein jarduketa salatzeko bidea araututa dago; galdera hau eragin duen kasuari dagokionez, Administrazioan ez da jasota geratu erreklamazio-espeditente baten dagokion hasieramatea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 26an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Iratxeko Monastegiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Iratxeko Monastegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Askotarikoa-Eusko Alkartasuna" Parlamentari Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Iratxeko monasterioarekin loturiko arazo batzuei buruz eginiko galderari erantzunez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazi du:

1.- Gaur egun, alde zurreko ekintza gisa, museoaren geroko instalazioak kokatuko diren Iratxeko monasterioaren zaharberritze-obra egiten ari da, eta obra horrek oraingoz eman duen emaitza klaustro barrokoa kanpotik egokitzea eta oso egoera txarrean zegoen elizaren estalkiaren zati bat ordezkatzeko izan da. Hori guztia geroko Nafarroako Museo Etnologikoaren onurarako. Hori dela-eta, oraindik ere ezinezkoa zaigu museoaren egitura fisikoari buruzko xehetasun gehiago ematea.

Hurrengo bi urtetarako, bi klaustroak batzen dituen hormartean zaharberritze-obra egitea aurreikusita dago; tamaina handiko obra, hain zuzen ere, klaustro barroko zaharberritze-obra-

rekin loturiko guztiari amaiera emanen diotenak. Une horretan, bertako egoitzak Museo Etnologiko gisa egokitzeari ekin ahal izanen zaio.

2.- Museo Etnologikoak bi aurrekontu-lerro ditu, 6 milioikoa bata erosteko eta inbentariorako, eta 3 milioikoa bestea bulego eta gainerakoen egokitzapen txikietarako. Erosteko eta inbentariorako kontusaila inbentarioa egiteko erabili izan da ia oso-osorik, 1997 arte behintzat. Hau logikoa da, Museoak abiapuntutzat fondo ugari baitzuen, baina katalogatu gabea; beharrezkoa zen fondoa sakon ezagutzea erosteko plana ezarri ahal izateko. Une honetan, inbentarioa amaitzekotan dagoela, falta den material guztiaren erosteko plana ezarri ahal izanen da, proposatutako museo-plannaren arabera.

Piezen zerrendari dagokionez, ezinezkoa da egun horretarako ematea, enpresa esleipendunak inbentarioa entregatzeko duen epea ez delako amaitu. Dena den, talde parlamentarioak bere esku dauka fitxategia Nafarroako Museo Etnologikoaren egoitzan.

Azkenik, irekitze-egunik ez da zehaztu, aurreko arrazoiak kontuan izanda.

3.- Ezinezkoa zaigu egun hori zehaztea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Sindikatuari joan-etorri eta dietengatik dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak sindikatuei joan-etorri eta dietengatik dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 12ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Askotarikoa-Eusko Alkartasuna" Parlamentari Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galdera egin du sindikatuei joan-etorri eta dietengatik dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

Galderak ondoko bi puntu jakin planteatzen ditu, adierazitako kontusailari dagokionez:

- Sindikatu bakoitzak hartu duen kopurua zehaztea
- Dieta eta kalteordain kontzeptua zehaztu eta arrazoitzea:
 - Zeren ondorioz
 - Zer joan-etorri (gastua sortarazi duten jarduerak argitzea)
 - Zer dieta (gastua sortarazi duten jarduerak argitzea)

Erantzun osoa eman ahal izateko, dirulaguntza honen sorrerara jo behar dugu.

1998az geroztik Foru Komunitatearen Administrazioak Komunitateko sindikatuen ordezkari beren jarduera sindikalaren ondorioz sortutako joan-etorrien gastuak eta, hala badagokio, dietak ordaintzen dizkio, adierazitako urtean lortutako eta Lehendakaritzako Idazkari Nagusiaren 1988ko abuztuaren 16ko Ebazpenaren (105. ZK.ko NAO, 1988ko abuztuaren 29koa) bidez burututako akordioan oinarrituz.

Foru Komunitatearen Administrazioak eta bere zerbitzupeko langileen sindikatuak ordezkari artean 1992ko otsailaren 27an sinatutako akordio-

en artean sindikatuen ordezkari dieten eta joan-etorriek sortarazitako gastuen adierazitako ordaitzeta-sistemaren ezabatzea barne hartzen da, eta horren ordez adierazitako aurrekontu diru-kopurua gizartean duten ordezkari-mailaren arabera banatuko da sindikatuen artean, diru-kopuruaren zati bat ordezkari unitario organoen (Pertsonal Batzordea eta Enpresa Batzordea) funtzionamendurako utziz.

1996ko maiatzaren 28an Foru Komunitatearen Administrazioaren eta sindikatuak ordezkari arteko bilkura izan zen; bertan, erabaki zen sindikatuak ordezkari joan-etorrien eta dieten gastuei dagozkien gastuak aldatzeko, bai Funtzio Publiko eta Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren, bai Osasunbidearen 1996 urteko Aurrekontuan dauden kopuruen banaketa, 1995eko maiatzaren 4an izandako azken hauteskunde sindikatu bakoitzak lortutako botoetan oinarrituz eginen zela. Adierazitako akordioa 1997ko Aurrekonturako eta ekitaldirako mantendu da.

Aurreko guztiaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak, 1997ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez, erabaki zuen sindikatuak ordezkari gastuak eta dietak ordaintzeko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko eta Osasunbideko 1997 urtearen aurrekontu diru-kopuruak 1995eko maiatzaren 4an izandako hauteskunde sindikatu lortutako datuen arabera sindikatuen artean banatzea.

Era berean, adierazitako Akordioak Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari dagokion diru-kopurua -5.000.000 pta.- biltzen du, eta honela banatuko da:

AFAPNA	1.039.583 pta.
CCOO	1.035.417 pta.
LAB	833.333 pta.
ELA	743.750 pta.
ASIT	522.917 pta.
UGT	410.417 pta.
SP FORAL	229.167 pta.
ESK-CUIS	120.833 pta.
SAE	33.333 pta.
CEMSATSE	31.250 pta.
Guztira	5.000.000 pta.

Hitz batean, 1992az geroztik aldatu ez den 5 milioiko zenbateko honek sindikatuen aldeko gastu-aurreikuspena biltzen du, sindikatuek beraiek duten ordezkapenaren arabera eta modu orokorrean ordaindu nahi dituen kontzeptuei dagokionez.

Honela, beren eginkizunetan diharduten sindikatuetako ordezkariak joan-etorrien eta dieten gastuei kasu egin nahi zaie, funtzionario publikoek zerbitzuagatik eta egindako bidaiengatik izandako gastuen kalteordainekin parekatuz.

Azkenik, emandako dirulaguntza ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean aurreikusitako jarraipen eta kontrolaren menpe dagoela azpimarratu behar da; honen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen

Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko araubide orokorra arautu zen. Aurtengo ekitaldia amaitzen denean, sindikatu bakoitzak joan-etorrien eta dieten ondorioz izan dituen gastuak eragin dituzten jarduerak ezagutuko ditu, Gobernuak adierazitako Foru Legea betez hala eskatuko baitzaie.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 19ko 87. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Andres Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ganbararen baliabidearen ordainketaren likidazioei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak zenbait arazoren berri izan du; hain zuzen ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gaineko Ganbararen baliabide iraunkorraren kontzeptupean, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean merkataritza-eta industria-jardueretan aritzen diren pertsona natural edo juridikoei Ganbara igortzen ari den behin-behineko likidazioen inguruan sortutako arazo berri.

Nafarroako nekazari eta ganaduzaleen egoera juridiko zehatzari dagokionez, apirilaren 4ko 6/1995 Foru Legearen 3. artikulua (azken lerroaldea), Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofizialari dagokion Ganbararen baliabide iraunkorra arautzen duena, lehen mailako izaerako nekazaritza-, abere- eta arrantza-jardueretan aritzen direnak baino ez ditu baliabidearen subjektu pasiboen esparrutik kanpo uzten. Legeak adierazitako lehen mailako izaerako jardueren definizio-rik biltzen ez duela kontuan izanda, adierazitako jardueren edukia definitzen duten beste zenbait araura jo behar dugu, gehigarri gisa.

Honela, gaur egun indarrean dagoen legedian, orientagarria eta analogikoki aplikagarria izan liteke Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatu daitekeeneko jarduerak mugatzen dituen. Horretaz gain, zenbait jarduera beren helburu edo edukiaren arabera nekazaritzako araubide berezitik kanpo geratzen dira, eta kanpo uztearen arrazoia 6/1995 Foru Legearen 3. artikulua bera da, lehen mailako nekazaritza- eta abere-jarduerak Ganbararen baliabidetik salbuesten dituen.

BEZaren Foru Legearen 70. artikulua nekazaritza-, baso-, abere- edo arrantza-ustiategiaren kontzeptua ezartzen du ondokoa adieraziz: "Kapitulua honetan xedatutakoaren arabera, nekazaritza-, baso-, abere- edo arrantza-ustiategitzat beren haztegi, ustiapen edo harrapaketatik

zuzenean produktu naturalak, begetalak edo animalia-produktuak lortzen dituztenak hartuko dira". Horrenbestez, produktuak zuzenean lortzeak definituko ditu lehen mailako izaerako produktuak, eta ondokoak geratuko dira horietatik kanpo Foru Lege bereko 71. artikulua araberara:

1. Hirugarrenei entregatzeko erregimen berezi honen barruan hartutako ustiatagietan lortutako produktu naturalen eraldaketa-, lanketa- edo manufaktura-jarduerak.

2. Nekazaritza-, baso-, abere- edo arrantza-ustiatagietan hirugarrenei eskuratutako beste hainbat produktuekin –izaera berekoak edo antzeko izaerakoak badira ere- nahasita lortutako produktuen merkaturatzea, kontserbazio soila helburutzat dituztenak izan ezik.

3. Produktu naturalak nekazaritza-, baso-, abere- edo arrantza-ustiatagiak daudeneko lekutik kanpo dauden establezimendu finkoetan merkaturatzea.

1993ko ekitaldian aplikatutako tasaren (Zergaren arauak aplikatzearen ondoriozko errendimendu garbien 1000ko 4) eta 1994ko ekitaldian aplikatutakoaren (1000ko 2) aldeari dagokionez, 5/1996 Foru Legeak eragindako aldaketa legislatiboari zor zaio, 1994an eta ondokoetan sortutako

zorretarako tasa 1000ko 2ra jaitsi baitzuen (Lehenengo Aldi Baterako Xedapena 1). 1993ko ekitaldian sortutakoak ordea, abenduaren 31ko 45/1983 Foru Legeak arautzen ditu, eta honek 1000ko 4 aurreikusten du 1. 1b) artikuluan.

Nafarroako Gobernuak har ditzakeen neurriak legez esleitu zaion Merkataritza Ganbararen gaineko administrazio-babeseko funtzioa betetzea da; babes horren ondorioa, 6/1995 Foru Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren araberara, Ganbararen baliabide iraunkorraren kudeaketa, likidazio eta zerga-bilketako gaian Ganbarak emandako ebazpenen aurka jartzen diren administrazio-errekurtso guztien ebazpena da.

Horrenbestez, Ganbarak legez kontra igorri dituen likidazio guztiak deuseztatu eta eraginik gabe utziko dira, bai errekurtsogileek Ganbararen baliabidearen subjektu pasiboen koalitatea ez dutelako (lehen mailako izaerako nekazarien eta ganaduzaleen kasu jakinean, esate baterako) bai beste edozein arau-haustek egintza deusezten duelako edo deuseztu dezakeelako.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 16an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria Ramón Bulto Llevat

Lehen Infanta Elena zentroa kudeatzen zuen GESNA, S.A. enpresari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak lehen Infanta Elena zentroa kudeatzen zuen GESNA, S.A. enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak galdera egin du GESNA, S.A. enpresari buruzko errekurtsoari buruz. Hona

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

1. Zein jarduketa burutu ditu Nafarroako Gobernuak GESNA S.A.k behar ez bezala kobratutako 294,9 milioi pezetako dirua itzul dezan?

Auzitarako Salaren epaitzaren zain dagoenez, Nafarroako Gobernuak ez du inolako jarduketarik egin 294,9 milioi pezetako dirua itzultzea lortzeko.

2. Ba al du Nafarroako Gobernuak egin beharren bat egin gabe aipatu Epaitegiaren epaiaren inguruan? Baiezkoan, zein?

Auto nagusiak bozketa eta epaitzaren zain daude 1996ko uztailaren 22az geroztik, Auzitarako Salaren probidentziaz.

3. Ba al du gaur GESNA sozietateak hitzarmen bat Nafarroako Gobernuarekin? Baiezkoan, zehaztu zentroak hitzartutako aurrekontuak, hitzarmenetako baldintzak e.a.

Gaur egun GESNAk ez du inolako hitzarmenik Nafarroako Gobernuarekin.

4. GESNA sozietateak edadetuentzako egoitzaren bat kudeatzen al du, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko kontzertuetatik kanpo? Baiezkoan, zehaztu zentroak, zenbat pertsonari ematen

zaien arreta eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarik jasotzen ote duten?

Gaur egun GESNAk ez du inolako egoitzarik kudeatzen Nafarroako Foru Komunitatean

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko otsailaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Ekialdeko Ingurubideko istripu-kopurua jaisteko hartu beharreko neurri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Ekialdeko Ingurubideko istripu-kopurua jaisteko hartu beharreko neurri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Mutiloabeitiko dermian Ekialdeko Ingurubideko 5,8 kilometrotik 6,7ra bitartean gertatu ziren istripuak aztertu ondoren Foruzaingoak landutako txostenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du neurriren bat zati horretako istripu-kopurua jaisteko. Baiezkoan, zeintzuk eta zer epetan?

Departamentu honek eskura dituen datuen arabera, Ekialdeko Ingurubidean 5,8 kilometrotik 6,7ra bitartean gertatutako trafiko-istripuak gidarien zuzentzearen ondorioz gertatu ziren, adierazitako bidegunea eta bertako elkargunea behar bezala seinalatuta baitaude indarrean dagoen araudiaren arabera.

Edonola ere, Departamentu hau oso arduratuta dago behin eta berriro istripuak gertatzen direneko bidegune edo puntuekin.

Horretan oinarrituz, ondoko neurriak gauzatzeko ari gara:

a) Egun hauetan Errepideen Foru Sarearen puntu beltz eta bidegune arriskutsuen identifikazio, diagnostiko eta soluziobiderako azterlan zehatza amaitzen ari dira. Helburua, adierazitako azterlanaren ondorioetan oinarrituz, Puntu Arriskutsuak Ezabatu eta Gutxitzeko Plana ezartzea da.

Ekialdeko Ingurubideko adierazitako bidegunea puntu arriskutsutzat hartuko dela aurreikus daiteke, eta horrenbestez, bertan jarduteari ekinen zaio.

b) Bestalde, 1997ko abenduaren 2an Nafarroako Parlamentuak onetsitako Errepideen Plan Nagusiak obra adierazgarrienetakotzat 1999tik aurrerako Ekialdeko Ingurubidearen bide-zabaltzea gaineratzen du. Bide-zabaltze horrekin batera, gaur egun adierazitako Ekialdeko Ingurubidean dauden elkarguneak maila desberdineko elkargune bilakatzeari ere ekinen zaio.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 21ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Diruz lagunduriko okupaziozko zentroek ezintasuna eta erantsitako desoreka psikikoak dituzten pertsonak zaintzeko dituzten baliabideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak diruz lagunduriko okupaziozko zentroek ezintasuna eta erantsitako desoreka psikikoak dituzten pertsonak zaintzeko dituzten baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 6an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua Parlamentari Taldeko Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak galdera egin du diruz lagunduriko Okupazio Zentroetan ezintasun psikikoak dituzten pertsonak hartzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz:

1. Desoreka psikiko gehituak dituzten pertsonak hartzeari buruz diru publikoz lagunduriko zentroek emandako ezetza dela-eta, zer neurri aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak egoera konpontzeko?

Adimen-urritasuna eta erantsitako desoreka psikikoak/jokabidezkoak dituzten pertsonekin ondoko egoera gertatzen ari da:

a) adimen-urritasuna duten pertsonentzako okupaziozko zentroek sarbidea eragozten diete erantsitako desoreka psikikoak/jokabidezkoak dituztenei.

b) Desoreka psikikoak/jokabidezkoak dituzten pertsonentzako okupaziozko zentroek sarbidea eragozten diete erantsitako desorekatzat adimen-urritasuna dutenei.

Bi zentro-mota hauek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez finantzatzen dira.

Egoera konpontzeko aurreikusitako neurriei dagokionez, Departamentu honek ondoko plan-teatzen du:

* Dagozkion erakundeekin (ANASAPS eta TASUBINSA) lankidetzeta-hitzarmenaren formula erabiltzea dirulaguntzak ematean, hala, hitzarmenaren erabiltzaile-mota hori onartzeko konpromisoa ezarri, betiere erreferentzia modura ukitutako pertsonari bere ezaugarri eta ingurabarretara gehien egokitzen den zentroa eskaintzea hartuz.

Formula hau behin-behinekoa litzateke 1998rako, 1999rako bi erakundeekin Itunaren formula ezarri nahi den neurrian, sarbidea dagozkion administrazio-instantziaren eskumen gisa gaineratzea ahalbidetuko duena.

2. Zer baliabide eskaintzen dizkie Administrazio Publikoak diruz lagunduriko okupaziozko zentroi ezintasuna eta erantsitako desoreka psikikoak dituzten pertsonak zaintzeko, plaza bat bete ahal izan dezaten?

Dirulaguntzaren formularen bidez Administrazio Publikoak ez du eskumenik sarbidean.

Dena den, une honetarako aurreikusitako Itunaren formularen Departamentuaren pertsonal teknikoaren eta dagozkion erakundeetako pertsonalaren eskuhartzea ezarriko da, sartzeko eskariak baloratzeko eta sartuko diren pertsonak zehazteko.

Eta hori guztia, besteak beste, adimen-urritasuna eta erantsitako desoreka psikikoak/jokabidezkoak dituzten pertsonen zentro hauetarako sarbidea izanen dutela zaintzeko.

3. Eritasun eta desoreka psikikoak dituzten pertsonen multzoak ba al du Etxez etxeko Laguntzarik, familiaren zainketari laguntzeko eta lan egitera joan behar duten gurasoak ordeztzeko?

Eritasun eta desoreka psikikoak dituzten pertsonen multzoak ez du Departamentu honi dagozkionez Etxez etxeko Laguntzako berriazko programarik.

Eduki eta esparru jakina duen Etxez etxeko Laguntzako Programa Orokorrak ezintasunak dituzten pertsonen kasu egiten die, hauen zirkuntziantziak adierazitako programarako (laguntza pertsonala eta soziala dakarten etxeko izaerako zenbait arreta eskaintzeko zuzendutakoa) ezarritako estaldurara egokitzen diren neurrian.

Hezkuntza- eta birgaitze-alderdiak Departamentu honen eta Osasun Departamentuaren arteko lan bateratua beharko luke.

Une honetan Zuzendaritza Nagusi honetan burutzen ari den lehen mailako Arretaren berrantolamendu-planteamenduan multzo hau Etxez etxeko Laguntzaren estalduraren inplikatueta bat bezala hartzen da, berezko eta berariazko premiekin eta osasunarekin lotzeko planteamenduekin.

4.- Adimen-desorekak edo ezintasun psikikoa duten zenbat pertsona dago etxean okupaziozko baliabideak falta izateagatik, eta zer laguntza berezi ematen die Nafarroako Gobernuak?

1997an pertsona minusbaliatu guztiekin erlazioatutako datuen informatizazio-prozesuari ekin zaio, hurbileko geroan Nafarroako populazio minusbaliatuaren mapa ezagutzea ahalbidetuko diguna; diagnostikoa, etiologia, ezintasuna, adina, bizilekua, sexua, minusbaliotasun-maila..

Gaur egun, adimen-desorekak dituzten pertsonen dagokionez, Osasun Departamentuak eskaintzen dituen datuekin lan egiten ari gara.

Gizarte Ongizate Departamentuak aurten aurrekontua gehitu egin du adimen-eritasunak ukitutako pertsonen zuzendutako okupaziozko plazak zabaltzeko. Neurri hau eta multzo honen beste zenbait premia betetzeko zenbait lan-bilkura izaten ari dira Adimen Osasuneko eta ANASAPS

Elkarteko pertsonal teknikoarekin eta Okupaziozko Zentroekin.

Ezintasun psikikoa duten pertsonen dagokionez, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 1996ko azaroan okupaziozko zentroetan sartzetik izan ez duten –bai adimen-gaitzak lantegietan ohiko zereginak burutzea eragozten zielako bai beren jokabide-arazoez zentroan arreta eta zaintza handiagoa eskatzen zutelako– premia berezietako desoreka psikikoak dituzten pertsonen zuzendutako Okupaziozko Unitateen Programa bati ekin zion.

1997ko martxoan abian jarri zen lehen unitate pilotua Burlatako San Jose Zentroan, eta emaitza onak izan zituen. Hemendik gutxira beste unitate berri bat ere abian jarriko da Tuterako eskualdean.

Hasierako aurreikuspena bost Okupaziozko Unitate berezi abian jartzea zen, baina familia askok beren seme-alabak adierazitako unitateetan sartzeko proposamenari uko egin izanak prozesua moteltzera behartu du eta hasieran aurreikusitako kopurua birplanteatzera.

Hori guztia jakinarazi dizut dagokion xedeetarako

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calisto Ayesa Dianda

Artaizko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Artaizko dermioan zenbait mendi-hektarea hondatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 19ko 87. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Artaizko dermioan 78 mendi-hektarea hondatzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak berak hondatu al ditu 78 hektarea mendi horiek Artaizen? Zertan da hondamendia?

Artaizen ez da azalera-hondamendirik gertatu. Nafarroako Gobernuak duela bi urte erretako lurren oihantze-proiektuari ekin dio. Egindako oihantze-lanak lagungarriak dira landareak bereonertzeko eta erregimen hidrológikoa erregulatzeke. Ereku txikietan azaltzen diren Meditarraneoko sastrakakoak berezkoak diren espezieak (batez ere ezpela eta ipurua) hasi berri duten lurraren kolonizazioa proiektuaren beraren ikuskeraren arabera errespetatu da. Lanak modu egokian egin dira, landare-tapiza (ia erabat belarrezkoa) ahalik eta gutxien eta zehazki aldatuz eta sail landatuak izanen duen behar bezalako garapenerako beharrezkoa den lurra soilik mugituz.

2.- Ingurugiro Departamentuak ba al daki ez dela komeni mendi-hegaletako ildoak aldaparen

arabera egitea, higadura handia eragiten dutelako?

Departamentuak ezagutzen ditu oihanlandaketei ekiteko beharrezkoak diren teknikak. Horregatik, hain zuzen ere, lurra prestatzeko lanak ez dira aldaparen arabera egindako ildoen bidez egin. Artaizen egindako lana hiru teknika desberdinen aplikazioan datza: lurra zulatzea lurpea lantzeko makinaren bidez, lurra zulatzea erretrahondeamakinarekin eta sestra-kurben bidezko lurpearen lanketa lineala.

3.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak ingurugiro-eragin larri horri aurre egiteko?

Ez da bereonertzeko neurririk behar dituen ingurugiro-eragin negatiborik gertatu. Gainerako oihantzeak bezala, Artzitzen ere sail landatuaren urteko jarraipena egingen da, behar bezala gartzten dela egiaztatzeke, landare lehiakideen dago-kion kontrolaren laguntzaz.

4.- Nafarroako Gobernuak ba la du hondatutako landareen ordez bertakoak jartzeko asmorik?

Hondatutako zuhaitz- eta zuhaiska-geruzan ez dago bertako landararik edo landare aloktonorik, eta beraz, ez dagokio ordezkatzea.

Sinatzen duen Kontseilariak Uriz jaunari Artaizko oihantze-lanetara bisitaldia egin eta bertan egindako jarduketei buruz eta horretarako izan zituzten arrazoiei buruz Oihan Antolamenduko Ataleko teknikariek emanen dizkieten azalpenak jasotzeko aukera eskaintzen dio.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 5ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 18ko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Jose Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Aipatu garbitzeko tunela jartzeko baimena dela-eta izan diren gorabeheren berri izan al du Nafarroako Gobernuak?

Sinatzen duen Kontseilariak komunikabideen bidez izan du aferaren berri, Departamentuan ez baitago jasota gertakari hau salatzen duen inolako instantziarik.

2.-Corellako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu al dio txosten, azterlan edo baimenen bat, beharrezko izatekotan, instalazio hori dela-eta? Baiezkoan: Noiz egin zuten eskaria? Zer dokumentazio-mota bidali eta eskatu du Corellako Udalak? Zer erantzun du Nafarroako Gobernuak?

Corellako Udalak ez zuen zegokionean Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 42. artikuluan ezartzen den motako inolako baimen-espediterik izapidatu.

3.- Nafarroako Gobernuak uste al du gai hau udal eskumenekoa baino ez dela? Zergatik eta zer legeditan oinarrituta?

Lehen aipatutako Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Foru Legearen artikulua “baimengarrizat” sailkatutako lurzoru ez urbanizagarriaren gaineko erabilera eta jardueratarako udal-lizentziak ematearen aurretiazko baimentze-prozedura ezartzen du. Deskribatutako jarduera adierazitako maila horretan barne hartzen da normalean. Dena den, Correllan gaur egun indarrean dagoen tokiko hirigintza-araudiak lurzoru ez urbanizagarriaren nekaza-

ritza-ustiategiei ez dagozkien eraikuntzak egitea debekatzen du, eta horrenbestez, aipatu jarduera ez da “baimengarria” adierazitako lurzoruan.

4.- Aipatu gaiari buruzko legediak aurreikusi al du antzinako udal planen iraugitzearen eta hirigintza arau berrien arteko iraganaldiaren arauketarik? Nafarroako Gobernuak egin al du, oro har, aipatu iraganaldian burutu beharreko jarduketari buruzko gomendiorik?

Gaur egungo legediak planen indarraldi mugagabea aurreikusten du. Ez dago araubide berezia aplikatu behar deneko planen arteko iraganaldirik; aitzitik, antzinako plana berria indarrean sartzen den arte aplikatuko da.

5.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du jarduketaren bat gai honi buruz? Corella hiriko entitate, elkarte edo talde politikoren batek eskatu al du horrelakorik? Zeinek?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua Corellako udalari zuzendu zitzaion, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren idatzi baten bidez, gaiari buruzko hainbat informazio eskatuz. Udalaren erantzuna ondoko puntuetan laburbil daiteke:

- Adierazitako garbiketa-tunelak zegokion garaian izan zuen udal-lizentzia, 1997/04/19ko Gobernu Batzarraren akordioz. Akordio horrek aurretik Hirigintza eta Industri Batzordearen aldeko txostena izan zuen eta udal-zerbitzu teknikoaren aldeko txostenak ere bazituen.

- Adostasunean oinarritutako konponbidea aurkitu nahi da udal-taldeekin batera jarduera legeztatzeko, indarrean dagoen planeamenduaren aldaketa zehatzaren bidez.

Ingurugiro informazioaren eta Udaletxeko Idazkaritzarekin izandako ahozko kontsulten arabera, akats teknikoa izan denaren susmoa hartzen zaio honi guztiari. Udalak oker hori zuzentzeko borondatea azaldu du eta dagozkion urratsak ematen ari da horretarako. Hori dela-eta, uste dugu Departamentuaren jarduketa legeztatze-prozesua behatzea eta prozesu hori behar den bezala amaitu dadin zaintzea izan behar duela oraingoz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 5ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegia buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegia buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 18ko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 611n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegia buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ba al du lehen aipatu hondakindegia berri?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak badu Zarrakazteluko La Barbadako hondakindegia berri eta ondoko jarduketak egin ditu:

I. 96-03-14 datarekin Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak txostena landu zuen hondakindegia toki horretan ez jartzea aholkatuz, sakan batean dagoelako eta sakan horretako ondo kontserbatuta dagoen landaredi naturalean eragina duelako.

II. Ondoren, 96-09-11 datarekin, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak hondakindegia legarrak ateratzeko jarduerengatik jadanik degradatutako bi lekutan kokatzeko aukera jakinarazi zion Udalari, eta honek ez zituen onartu 96-09-24 idatziaren bidez, batak iturri batean eragina izanen omen zuelako eta bestea jabego pribatukoa zelako.

III. 96-10-7 datarekin, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak idatzi berria igorri zion Udalari kokapeneko hasierako eskaintza besteen bazterteagatik onartuz, baina ondokoa gogoraraziz; ustiapen-plana, ixtea, sarbidea eta zaharberitze-plana zehazten dituen dagokion ingurugiro-eraginez azterlana barne hartzen duen dokumentu tekniko-

aren bidez sailkatutako jarduera gisa legeztatzeko beharra.

IV. 97-11-5ean zaindarien zerbitzuak ikuska-pen-akta bat idatzi zuen sakanaren hondoan isurketak egiten direla eta adierazitako sakanaren hondoan isurketa-lekura arte bide bat zabaldu dela salatuz.

V. 97-12-19 datarekin Goardia Zibilaren 522 Komandantziak, igorritako salaketa jaso zen, Marcos Antonio Pérez Abendaño jaunak Zarrakazteluko Udalaren aurka eginikoa, Zarrakazteluko udalerriko La Barbadako sakanean hilabete pare bat lehenago edo hondakindegia irekitzeagatik. Idatzi honekin batera Goardia Zibilak aurrera eramandako eginbideak datoz, salatutako gertakarien egiazkoatasuna baieztatuz, bai eta Zarrakazteluko Alkatea den Jesús Larramendi Sánchez jaunaren adierazpen bat ere; bertan hondakindegia administrazio-baimena badagoela eta aukeratutako kokapena, hurbiltasuna eta inpaktu bisuala kontuan izanda, leku egoki bakarra dela dio.

2.- Hondakindegia irekitzeko baimenik eskatu al dute? Nork eskatu du? Noiz? Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak irekitzeko baimena eman al du?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan ez da Zarrakazteluko hondakindegia legeztatzeko inolako espedienterik jaso. Horrenbestez, ez da baimenik izapidatu.

3.- Nafarroako Gobernuak uste al du hondakinak pilatzearen ondoriozko ingurugiro-eragina handitzat jo daitekeela aipatu inguruan? Erantzuna baiezkoa ala ezezkoa izan, zergatik?

Hondakinak pilatzearen ondoriozko ingurugiro-eragina ez da handitzat hartu eta sarbide-obrek eta isurketa-plataformaren egokitzapenak ezabatutako landaredia epe ertainera bereonera daiteke.

Gaur arte pilatutako hondakinen garbiketa eta ezabatzea egingarria da eta ez da oso garestia.

4.- Edonola ere: Nafarroako Gobernuak gomendiorik egin al du aipatu inguruan isurketak egokitu eta mugatzeko? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu ingurua zaindu eta bereonertzeko jarduketarik? Zein?

Nafarroako Gobernuak, arestian adierazi denez, hondakin geldoak isurtzeko aukera besterik ez du kontuan hartu, hori baita Udalak planteatu duen gai bakarra eta hori izanen litzateke lehengo muga, hau da, ezinen litzateke erabili hondeaketa-lurrak edo eraikinen eraisketako obra-hondakinak ez diren beste hondakinen isurketarako.

Kokapenaren egokitzapenari buruzko gomen-dioei dagokionez, proiektuan neurri zuzentzaile gisa deskribatuta eta adierazita derrigorrez agertu beharreko guztiez gain, sarbideei, hesitzeari eta jarduera uztean hondakindegia zaharberitze-

planari buruzko proiektua eta dagokion ingurugiro-eraginaren azterlana eskatu da.

Arestian adierazitako legezko prozedurak betetzea ingurua zaintzeko eta bereoneratzeko behar adinako bermetzat hartzen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 5ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egin dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 19ko 87. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Abaurrea eta Aezkoako aldeetan gerta daitezkeen hotzaldi eta elurteak direla-eta Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du hobekuntzarik egitea Abaurregainen jarduten duten Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Errepide Kontserbazioaren eta Babes Zibileko (SOS Nafarroa), Foruzaingoko, Suhiltzaileen Partzuergoaren eta Goardia Zibilaren zerbitzuen koordinazioan?

Nafarroako Gobernuak 1997-1998 Neguko Errepideen egoera Plana landu du, eta bertan neguko errepide-egoeretan jarduteko adierazitako erakundeen arteko koordinazioa zehazten duena, bai prezipitazioak gerta daitezkeenean, bai prezipitazioak gertatzen direnean.

Plan honek Komunitate osoa barne hartzen du.

2.- Zer baldintzatan eta zer nolako aurreikuspenekin burutzen da neguko errepide-egoeraren, horniduren eta komunikazioen kontrol eta jarraipena Abaurregaina eta Aezkoako inguruetan?

Adierazitako inguruak Agoizko barrutiaren barne daude, eta Erronkariko zentroa ere barruti horretan dago.

Gaur egun barrutian erabilgarri dauden berezko ekipoak bost dira, beste bi kontrataturikoen laguntzaz.

Urtugarrien biltegiak Agoizen eta Erronkarin daude.

1998ko urtarrilaz geroztik beste lau ekipo oso daude erabilgarri, Agoizko Kontserbazio Barrutiaren kontratuari dagozkionak.

3.- Nafarroako Gobernuak hobetu al ditu baliabide berekiak, joan den neguan eskura zeudenekin alderatuz gero, Agoizko Kontserbazio Zentroko giza eta material-ekipoak berrituz zein prestatuz? Abaurregainetik eta Aezkoatik hurbil

dauden beste Zentroetatik bitartekoak bidaltzea aurreikusten al du? Zeintzutatik?

Bost berezko ekipo daude eta Erro, Mezkitz, Ibañeta, Lazar eta Aburreko mendateetarako kontrataturiko beste bi ekiporekin eta Agoizko Kontserbazio Barrutiari dagozkion beste lau ekiporekin osatu dira. Erronkarin dagoen kalapatxa eramateko atoi bat ere erosi dute.

Hasieran behintzat, ez da aurreikusten beste zentroetatik bitartekoak bidaltzea, salbuesenez-

ko egoeretan izan ezik eta beste zentroetako errepideak bazter utzi gabe. Ekipoak eraman beharko balira, Mugairiko Zentrokoak eta Tafallako (Zangotza) Zentrokoak izanen liriateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 17an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
Jose Ignacio Palacios Zuasti

Hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 19ko 87. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak galdera egin du hotzaldi eta elurteei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak prestatu duen Jarduketa Planari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak prestatu al du Jarduketa Planik elurte handiei edo hotz-erauntsiei aurre egiteko, oraingo negualdi honetarako? Nola da, laburbildurik, Plan honen funtzionamendua?

Neguko errepide-egoerari buruzko Plana landu da 1997-1998ko negurako, eta bertan Kontserbazio eta Teknologia Kudeaketako Zerbitzuak, Foruzaingoa, Babes Zibila, Goardia Zibila eta Suhiltzaileen Partzuergoa barne hartuta daude. Plan honen helburu nagusia Foru Komunitateko errepide guztien errepide-egoera etengabe bermatzea

da. Horretarako, prebentzio-izaerako erabateko sistema eta prezipitazio handiek eragindako larrialdi-egoerei aurre egiteko zenbait jarduketa aringarri ezarri dira.

Planeko azpimarratu beharreko puntuak ondokoak dira:

1. Jarduketei lehentasuna ematea

Hiru lehentasun-maila ezarri dira:

– Lehen maila: etengabe arreta eskaintzen zaien bideguneak, egunean 24 orduz.

Lehen maila honek ondoko errepideak barne hartzen ditu:

- N-I (Etxegarate)
- N-240-A (Sakanako Autobia)
- A-15 (Iparraldeko Autobia)
- N-121-A (Iruña-Behobia)
- N-111 (Iruña-Logroño)
- N-240 (Iruña-Jaca)
- N-232 (Cortes-Alfaro) eta
- N-121 (Iruña- Los Abetos)

-Bigarren maila

07:00 eta 21:00 artean eskainiko zaio arreta, eta salbuespeneko kasutan, egunean 24 orduz.

Ondoko errepideak barne hartzen ditu:

- N-121 (Ornoz-Dantxarinea)
- N-130 (Iruztun-Lodosa)

- N-135 (Iruña-Luzaide)
- NA-120 (Lizarrar-Beasain)
- NA-140 (Auritz-Izaba)
- NA-178 (Irunberri-Ezkaroze)
- NA-170 (Lekunberri-Doneztebe)
- NA-2140 (Nabaskoze-Burgi) eta
- NA-7000 (Iruña-Lizarrar)

– Hirugarren maila

Ukitutako gainerako bideak barne hartzen ditu

2. Faseak

Ikuspuntu operatiboa kontuan izanda, ondoko faseak ezartzen dira:

2.1.- Aurreikuspen- edo prebentzio-fasea.

1000 metrotik beherako elurren aurreikuspen meteorologikoari dagokio, Agoizko barrutia izan ezik, 1200 metrotik beherako elur-aurreikuspenarekin fase honetan barne hartzen baita.

2.2.- Prezipitazioen fasea edo fase aringarria

2.3.- Larrialdi-fasea

Elur-prezipitazioak azaltzen direnekoa; prezipitazio horiek errepide nagusietako errepide-egoeran eragin larria izan dute ohiko baliabideak behar adinakoak ez direlako, eta beste hainbat ezohiko baliabide erabili beharko dira.

3.-Funtzioak

3.1- Prebentzio-fasean

3.1.1.- Kontserbazio Zerbitzua

- Baliabideen egiaztapena eta erabilgarritasuna
- Sistemaren hedatze estrategikoa
- Urtugarriaren prebentziozko zabaltzea.

3.1.2.- Foruzaingoaren eta Trafikoko Goardia Zibilaren Zerbitzua

- Trafikoaren zaintza eta kontrola
- Sistema bereziaren arian-ariko aplikazioaren aurreikuspena
- Giza eta material-baliabideen mantenimendua

3.1.3.- Babes Zibileko Zerbitzua

- Neguko errepide-egoerari buruzko informazioa hartzea, aztertzea, lantzea eta zabaltzea.
- Sarri erabiltzen diren baliabideen katalogoen kontrola eta eguneratzea.

3.2.- Prezipitazio-fasean

3.2.1.- Kontserbazio Zerbitzua

• Errepideak zabaltzea eta errepide-egoera mantentzea

- Berariazko baliabideen koordinazioa

• Neguko errepide-egoeraren baldintzak zehaztea SOS Nafarroako erabiltzaileei jakinarazteko

3.2.2.- Foruzaingoaren eta Goardia Zibilaren Zerbitzua

• Planean bildutako sistema operatiboa mar-txan jartzea

- Trafikoaren zaintza, kontrola eta erregulazioa

• Errepide-egoerari buruz SOS Nafarroako Koordinazio Zentroarekin komunikazioa izatea.

• Lankidetzazuzena Kontserbazio Zerbitzua-ren ekipoekin errepideak zabaltzeko eta errepide-egoera mantentzeko lanetan.

• Jarduketan koordinazioa Trafikoko Goardia Zibilaren, Foruzaingoaren eta Araba eta Gipuzko-ako Ertzaintzaren artean

3.2.3.- Babes Zibileko Zerbitzua

- Informazioa hartzea, lantzea eta emititzea
- Zerbitzu-eskariak hartzea
- Lotura eta koordinazioa SOS DEIAK zerbitzuekin

• Planean bildutako zerbitzuen koordinazioa

3.2.4.- Suhiltzaileen partzuergoa

• Informazioa SOS Nafarroa zerbitzura eramatea

- Salbamendu-ekipoak erabilgarri izatea

• Kontserbazio Zerbitzuak hala eskatuta, errepideak zabaltzeko lanetan Kontserbazio Zerbitzuekin berarekin lankidetzan aritzea

3.3. Funtzioak larrialdi-egoeran

Egoera honetara iristean, SOS Nafarroa zerbitzuak, Talde Koordinatzaileak hala eskatuta, Nafarroako Larrialdiko Lurralde Planaren Zuzendaritzari berri emanen zaio plana osorik edo partzialki martxan jar dezan, hala badagokio.

4.- Koordinazioa

Bi koordinazio-maila ezarri dira:

4.1.1- Lehen maila

Aurreikuspen- edo prebentzio-faseari dagokio.

Ondokoek osatzen dute:

- Kontserbazio Zerbitzuaren txandako burua
- Goardia Zibilaren Koordinazio Zentroaren arduraduna
- Foruzaingoaren Trafiko Atalaren operazioen burua
- SOS Nafarroa Koordinazio Zentroko Gelako burua

4.1.2.- Bigarren maila

Prezipitazio-faseari dagokio

Ondokoek osatzen dute:

- Kontserbazio Ataleko burua
- Trafikoko Goardia Zibilaren Azpisektoreko burua
- Foruzaingoaren Trafiko Ataleko burua
- Babes Zibileko Zerbitzuaren Plan eta Operazio Ataleko burua

4.2.- Koordinazio Taldearen funtzioak

- Jardueri lehentasuna ematea
- Plangintza, antolamendua eta koordinazioa
- Ezarritako informazio-protokoloaren aplikazioa
- Egoeraren jarraipena, azterketa eta bilakaera
- Guztien koordinazioa

5.- Errepide-egoeraren baldintzen zehaztapena

Kontserbazio Zerbitzuaren eskumenekoa da.

Zerbitzu honetako pertsonala ez badago, erabakia trafiko-patrula batek hartuko du, berehala SOS Nafarroari informatuz, Zerbitzuari jakinarazi diezaion.

Era berean, trafiko-patrula batek bidegune batek zirkulazioa mugatua duela edo baldintzak aldatu direla ikusten badu, SOS Nafarroari berri emanen dio Kontserbazio Zentroari jakinarazi diezaion.

6.- Eskariei arreta

Zerbitzu-eskari guztiak SOS Nafarroako Koordinazio Zentroan bilduko dira.

Ondoko prozedura ezarriko da oro har:

a) Elurra kentzeko ekipoen eskariak Kontserbazio Txandako buruari jakinaraziko zaizkio, 08:00etatik 21:00ak arte. 21:00etatik 08:00ak arte

mantenimendurako kontratatutako enpresei jakinaraziko zaizkie zuzenean.

b) Trafiko-patruien eskariak Foruzaingoaren Trafiko Atalaren Operazio Buruari edo Trafikoko Goardia Zibilaren COTARI jakinaraziko zaizkie.

c) SOS Nafarroak errepide-egoerari eta baliabideen kokapenari buruzko informazioa jarraian eta etengabe jasoko du.

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du hobekuntzarik Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Kontserbazio eta Teknologia Kudeaketako zerbitzuaren eta Babes Zibileko (SOS Nafarroa), Foruzaingoko, Suhiltzaileen Partzuergoaren eta Goardia Zibilaren zerbitzuen koordinazioan?

Adierazitako erakundeen arteko koordinazioa 1997-1998ko Neguko Errepide-egoerako Planean deskribatzen dira, eta Plan horren oinarritzko ildoak aurreko galderan erantzun dira.

3.- Zer baldintzatan eta zer nolako aurreikuspenekin abiarazi da neguko errepide-egoeraren kontrol eta jarraipenerako alerta-sistema?

Hori Planean deskribatuta dago, eta lehenengo galderan erantzun zaio.

4.- Nafarroako Gobernuak hobetu al ditu baliabide berekiak, joan den neguan eskura zeudenekin alderatuz gero, gure Komunitatean zehar barreiatutako Kontserbazio Zentro ezberdinetako giza eta material-ekipoak berrituz zein prestatuz? Zein zonatan hobetu dira ekipo horiek?

Berezko ekipoei dagokionez, Erronkariko ekipoa hobetu dira bi xafla berri eta kalapatxa garraiatzeko atoi bat erosiz, Isaba-Frantzia errepide zabalik mantentzeko, gutxienez 18. km. arte, eta eski-pistetarako ohiko sarbidea ahalbidetzeko, eta elurreko eskola-kanpainen sasoian, 22. km. arte.

Nabarmen hobetu dira kontrataturiko ekipoa ondoko aldeetan:

a) A-15, N-240-A eta N-I autobiak. Hamabi ekipo daude erabilgarri Kontserbazioko kontratua- ren kargupean.

b) Gainerako lurutzungo barrutia: bi ekipo

c) Loiti eta Artederretako mendateak: ekipo bat

d) Abaurre eta Larraingo mendateak: ekipo bat

e) Erroi, Mezkiritz eta Ibañetako mendateak: ekipo bat

f) Belateko mendatea: ekipo bat

Horrenbestez, hogei kontraturiko ekipo oso daude erabilgarri gaur egun, berezko hamasei ekipoez gain.

Hortaz gain, 1998ko urtarriletik aurrera beste hamalau ekipo ere erabilgarri daude, Iruña, Tafalla, Lizarra, Agoitz, Mugairi eta Tuterako zentroetan banatuta, Kontserbazioko kontratu berriekin.

5.- Eskura dauden langileak eta bitartekoak nola daude banatuta zonetan? Horrelako egoerei aurre egiteko beharrezkoa den material guztia bil-tzea xedatu al du Nafarroako Gobernuak?

Une honetan, berezko ekipoak, kontraturikoak eta Kontserbazioko kontratuekin erabilgarri dauden bitartekoak kontuan izanda, ondoko hau da bitartekoen banaketa:

- Iruñeko zentroa: zazpi ekipo
- Tafallako zentroa: zazpi ekipo
- Mugairiko zentroa: lau ekipo
- Agoizko zentroa: hamaika ekipo
- Irurtzungo zentroa: hamabost ekipo

- Lizarrako zentroa: sei ekipo
- Tuterako ekipoa: hiru ekipo

Guztira, 53 ekipo daude erabilgarri.

Ekipo bakoitza kamioi batek, elurra kentzeko falka edo xafla batek, urtugarri-barreagailu batek eta dagokion pertsonalak osatzen du.

6.- Eguraldi txarreko egoeretan gidarien zuhertasuna areagotzera bideraturiko informazio-kanpainarik burutzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Hasieran behintzat, ez dago aurreikusita 1997-98ko negurako berariazko kanpainarik egitea; dena den, 1998-99ko negurako horrelako zenbait neurri kontuan hartzeko aukera aztertzen ari gara.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1997ko urtarrilaren 17an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 29ko 88. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak galdera egin du ikastetxe itunduetako ikasleak hezkuntza-politikarengatik protestatzeko erabiltzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna.

1.- Ohikoa da ikastetxe guztietan, bai publikoetan bai pribatuetan, zuzendaritzak, tutoreek edo Guraso Elkarrekin familiei seme-alaben bidez

gutunak igortzea. Ez dirudi prozedura hori berez ikasleak inola ere "erabiltzea" edo manipulatzeko denik. Edozein kasutan ere, gurasoei dagokie gutunetik edukia ikastetxe batek barne hartzen dituen alderdi desberdinekin (pedagogikoa, administratiboa, ekonomikoa..) zerikusia duen ala ez erabakitzea.

2.- Zeharo desberdina da hezkuntza-elkarteko kideek helburu jakinak lortzen saiatzeko lankideak, ikasleak edo seme-alabak nahasten dituzten kasua. Dena den, ezarritako arautegia urratzen ez den bitartean ez dagokio administrazio-neurririk hartzea, dagozkion organoek hartutako Barne Ordeneko Erregelamenduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, jakina; hori guztia kontuan izanda, ez du zentzurik Nafarroako Gobernuak zein neurri hartuko dituen galdetzeak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 4an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1996 eta 1997 urteetan aldi baterako kontrataturik egon diren personen kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1996 eta 1997 urteetan aldi baterako kontrataturik egon diren personen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak zuzenean edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez garatu beharreko enplegu finkoaren politikari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1) Zenbat pertsona egon diren aldi baterako kontrataturik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 1996 eta 1997 urteetan. Zehaztu zein zentrotan, zerbitzutan edo unitatetan, eta zein kategoriarekin.

Honekin batera doazen I, II eta III. eranskinetan zehaztuta dago.

2) Langile horietako bakoitzaren kontratuaren iraupena eta mota.

I, II. eta III. eranskinetan zehaztuta dago.

3) Kontratazio bakoitzaren kostua, zehaztuz zein ordainsari finko eta aldakor dituzten, patronalak Gizarte Segurantzari ordaintzen dion diru-zenbatekoa eta gastu hori zein aurrekontu-lerroren kargura ordaindu den.

IV. eranskinean barne hartzen da dauden kategoria bakoitzeko aldi baterako kontratazioaren kostuaren zerrenda, 1996 eta 1997. urteei dagozkien ordainsari finkoak eta aldakorak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak zehaztuz.

Ordainketa IV. eranskinean adierazitako aurrekontu-lerroen kargura egin da.

4) Kontratazioetako bakoitzaren arrazoia, langile kontratatua noren ordeztu dagoen, halakorik bada, eta betetzen duen lanpostu hutsa. Kontratuaren arrazoia besterik bada, horri buruzko informazioa.

V. eranskinean plantilako lanpostuen zerrenda biltzen da, betetzen dituzten pertsonen izen-abizenak adierazita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 5ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin kontrataturiko oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin kontrataturiko oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentilazio mekaniko, loaren apnea sindromerako terapia eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzari aurrea hartzeko terapia zerbitzuaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldeko Osasun Bozeramailea den M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak galdera egin du CEIMSA Elektromedicina SL enpresarekin hornidura kontratua, oxigenoterapia, aerosolterapia, aireztatze mekaniko, apnea

sindromearen terapia eta bularreko haurraren heriotzari aurrea hartzeko zerbitzuei buruzkoa, geratzeko erabakiari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein da gaur egungo egoera erabiltzaileei zerbitzua emateari doakionean?

Gaur egun zerbitzua normaltasunez ematen da.

2. Berrito ere luzatu al zaio oxigenoterapia zerbitzuaren kontratua Carbueros Metálicos, S.A. enpresari?

“Carbueros Metálicos S.A.” enpresak kontratuaren luzapena zuen 1997-9-1etik CEIMSAri hasiera emandako kontratu-ebazpeneko espedienteari amaiera emanen zion administrazio-ebazpenaren eguna arte.

Gobernuak CEIMSArekin zegoen kontratuaren ebazpena baimendu ondoren, 1997-12-29an hartutako erabakiaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak “Carbueros Metálicos S.A.” enpresarekin luzapena izapidetzeari ekin dio, 98/1/1etik aurrerako eraginarekin izapidatzen ari den lehiaketa publikoaren ebazpena arte.

3. Nafarroako Gobernuak ebazpena ematera-koan eskura izan dituen hiru txostenak bere zerbitzu juridikoetakoak zirenez, pentsatu al du beste zerbitzu juridikoetara jotzea gai honi buruzko txosten inpartziala eman dezaten?

Ikuspuntu juridikotik ohiko praktika izaten da aholkularitza juridiko nagusiaren txostena unitate hierarkiko txikiak emandakoekin bat datorrean gaia erabakitzen ematea.

4. Egia al da komunikabide batek Osasun Kontseilariaren ahotan jarri duena, alegia, legea non, tranpa han, eta CEIMSAk, izena aldatuz gero, lehiaketa berrira aurkez zitekeela?

Komunikabideetan bildutako adierazpenak ezin hobeto ulertzen dira beren testuinguruan.

5. Oxigenoterapiaren horniduraren merkatua ia erabat monopolizaturik dauka Carbuos Metálicos

S.A.k, Estatu osoan. Nafarroako CEIMSA enpresa desgaitu ondoren, ba al da oxigenoterapia zerbitzurako lehiatu eta zerbitzu hori eman dezakeen bestelako enpresarik?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak une hauetan ez daki oxigenoterapia-zerbitzurako lehia dezakeen beste enpresarik dagoen, ez eta kontrakoa ere, eta ez dugu bazter uzten Espainiako beste hainbat enpresa lehiaketara aurkez daitzekenean, eta gainera, ez dugu ahaztu behar baldintzak betetzen dituen Europako Elkarteko edozein enpresak lehiatzeko aukera ere baduela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 5ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Errezetak euskaraz eta gaztelaraz emateko ekimenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak errezetak euskaraz eta gaztelaraz emateko ekimenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna-Askotariko” Parlamentari Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galdera egin du errezetak euskaraz eta gaztelaraz emateko beharrari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Noiztik ari dira hori betetzen eta errezetak euskaraz eta gaztelaraz ematen.

Errezeta elebidunak 1997ko irailaz geroztik ematen dituzte.

2. Egun horretatik galdera honi erantzuna emateko egunera arte zenbat errezeta egin diren.

Adierazitako egunean 20.000 errezeta-taloitegi prestatu ziren, 10.000 P.3 ereduak langileentzat eta 10.000 P.3/1 ereduak pentsiodunentzat, hau da, bi milioi errezeta guztira.

3. Euskarari buruzko Legeak eskualde euskalduna deitzen duen horretan, errezeta guztiak al daude euskaraz eta gaztelaraz? Hala ez balitz, azalpen arrazoitua.

Joan den irailetik aurrera eskualde euskalduneko Osasuneko oinarrizko zonetara igortzen diren errezeta guztiak euskaraz eta gaztelaraz dira.

4. Euskarari buruzko legeak eskualde mistoa deitzen duen horretan, nork erabakitzen du errezetek elebidunak ala gaztelaraz bakarrik izan behar duten?

Medikuak erabakitzen du errezeta elebidunak edo gaztelarazkoak erabiliko dituen.

5. Zer prestakuntza eman zaie eskualde mistoko medikuei errezeten aipatu aukera egiteko?

Irailan idatziz berri eman zitzaien osasuneko oinarrizko zona guztietako eta osasun-zentro guztietako zuzendariari.

– Eskualde euskaldunean une horretatik aurrera errezeta elebidunak emanen zirenaren berri eman zen.

– Eskualde mistoan eskueran izanen zituzten errezeta elebidunak prestatu zirenaren berri eman zen.

6. Zenbat medikuk eskatu du errezetak euskaraz eta gazteleraz inprimatzea? Ziurta bedi ospitaleka eta anbulatorioka, kopurua eta espezialitatea zehaztuz.

Osasun-zentroek beren beharren arabera erabiltzen duten errezeta-taloitegien gordailua dute zentroan bertan, eta horrenbestez, ez dugu gure eskura medikuko taloitegien kontsumoa. Ondoren, zentroekako eskualde mistoko taloitegi elebidunen eskariak eta taloitegi elebidunen guztirako kontsumoa adierazten dira:

Zentroekako taloitegi elebidunen kontsumoa (Eskualde mistoa). (97-9-1 – 98-1-19)

Zentroa	Taloitegi P.3	Taloitegi P.3/1
Agoizko Osasun Etxea	100	200
Alde Zaharreko Osasun Etxea	34	116

Txantreako Osasun Etxea	18	28
Ermitagañako Osasun Etxea	250	300
Lizarrako Osasun Etxea	100	200
Uharteko Osasun Etxea		50
Mendillorriko Osasun Etxea	20	20
Orkoingo Osasun Etxea	50	50
COFES (Iturrama)	10	5

Taloitegi elebidunen kontsumoa eskualde mistoan eta eskualde euskaldunean (97-9-1 – 98-1-19)

Taloitegi ereduak, P.3 (aktiboak)	1.721
Taloitegi ereduak P.3/1 (pentsiodunak)	3.208

7. Kanpainaren bat egingo al da zerbitzu medikuen erabiltzaileek horren berri izan dezaten?

Gaur egun ez dago errezeta elebidunen inola-ko publizitate-kanpainaren proiekturik

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko urtarrilaren 29an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Nafarroan ezarri nahi den espetxe ereduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan ezarri nahi den espetxe ereduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nueva Izquierda” Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentariak galdera egin du Nafarroan ezarri nahi den espetxe-ereduari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuako Lehendakariordeak iragarri duen akordiorako aurreikusten diren nondik-norakoak, hurrengoei buruz: espetxearen tamaina, gehienezko presoan kopurua (gizon-emakumeak), Estatuko Gobernuak bereganatuko dituen kostuak espetxe berria eraiki eta hornitze-ko.

Nafarroan gure Komunitatearen beharrei egokitzen zaion espetxea eraikiko da. Aurtengo lehen hiruhilekoan Estatuko Administrazioarekin horri buruzko hitzarmena izenpetzea aurreikusita dago.

400 plaza inguru izanen ditu, bi sexu-erakunde per-sonentzat, eta kopuru horrek Nafarroako populazio presoari eta iragaitzako populazio posibleari buruz azterketa historikoen bidez kalkulatu-ko beharrei erantzuten die.

Estatuko Gobernuak bere gain hartzen dituen kostuei dagokienez, aurtengo lehen hiruhilekoan Foru Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren arteko Hitzarmena izenpetzea aurreikusita dago;

Hitzarmen horren arabera Estatuko Gobernuak ordainduko duen preso-plaza bakoitzeko dirukopurua Espainia osoan egin den Espetxerik aurreratu eta hobekien hornitutakoaren preso-plazari dagokionaren parekoa izanen da; zifra hori gaintuz gero, Nafarroako Gobernuak hobekuntza osagarriren bat egin nahiko balu, alde hori Foru Komunitateak ordaindu beharko luke.

2.- Nafarroako Gobernuak zer azterlan abiarazi duen eskumen berri horiek hartzea dela-eta, hurrengoiei buruz:

- a) Emakumeen modulua berehala irekitzea.
- b) Lantegietan egiten diren lanen ordainketa duina.
- c) Presoak espetxearen ohiko jardueran parte hartzea bidezko egitea.
- d) Abokatuen eta presoan arteko zuzeneko eta telefono bidezko komunikazioa ahalbidetu eta erraztea.
- e) Espetxeko bizi-baldintzak hobetzea, espetxean dauden pertsonen askatasuna baino ez zaiela kendu aintzat hartuta eta baita erdietsi beharreko lehen helburua aipatu pertsonen bergizarteratzea dela ere.

Lehenik aurreikusitako Hitzarmenean zigorerakundeen gaian eskumen berriak hartzea bilitzen ez dela adierazi behar da; dena den, azter daitekeen gaia dugu.

Adierazitako idazati jakinei dagokionez, ondo-koa jakinarazten dugu;

a) Ezinezkoa da emakumeen modulua berehala irekitzea, beharrezkoa gertatzen baita zenbait egitura-aldaketa burutzea; aldaketa horien kostua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eginiko azterlanaren arabera, 70 milioi pezeta litzateke. Aldaketa hauek espazioen banaketa berria eta emakumezkoen pertsonalari dagozkion lanpostu berriak ekarriko lituzke, eta Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik bi alderdi horietan.

b) Espetxean egiten diren lanak borondatezkoak eta prestakuntzazkoak dira, eta egindako lanen ordainetan pena luditzea erabakitzen da. Hainbat lan egiteagatik presoek jasotzen duten dirukopuruak gastu txikietarako poltsiko-dirua eskura izatea ahalbidetzen du.

c) Ematen diren Espetxearen barne-funtzionamenduari buruzko zuzentarau guztiak Zigor Erakundearen eskumenekoak dira.

d) Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bidez, 6.000.000 pezetako aurrekontu-kontusaila du 1998rako, jarduketa

berri bati aurre egiteko: Presondegiko Laguntza Juridikoaren Zerbitzua.

Zerbitzu hau zigor-gaian presoek defentsa eta babes judizialerako duten eskubide konstituzionala gauzatzearen ondorioz sortzen da.

Presondegiko Laguntza Judizialaren Zerbitzuetik betetzea planteatzen diren helburu nagusiak ondokoak dira:

- Espetxean preso daudenei zigor-gaian dituzten eskubide eta betebeharrei buruz informatu eta aholkatzea, gerta daitekeen defentsarik ezako edozein egoera saihestuz.
- Presoak hala eskatuz gero, bere eskubide eta interesen defentsan esku hartzea, zigor-gaian sor daitezkeen prozesuetan.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua zerbitzu honen bideragarritasuna eta abian jartzea aztertzen ari da, presoekin zerikusia duten erakunde desberdinekiko (Abokatuen Elkargoa, Iruñeko Espetxea, Justizia Ministerioa, Presondegiko Gizarte Zerbitzuak) koordinazioa bilatuz.

e) Presondegiko Gizarte Zerbitzuak dira preso-
ei, segurtasun-neurriean dauden zigortuei eta hauen familiei arreta soziala eskaintzen dietenak eta espetxe barruan dagoen presoak kanpoaldearekin dituen loturak sustatu, indartu eta mantentzeko eskuhartzeak egiten dituztenak, bilatzen den helburu nagusia biztanleriaren zati hau bergizarteratzea (norbera, familia, lana eta abar) baita, hain zuzen ere.

Espetxean sartzen diren pertsonen bergizarteratzea lortzeko xedez, zuzeneko arreta sozialaz gain, beste hainbat jarduera ere burutzen dira familiaren eta elkartearen esparruan, eta prestakuntzazko ekintzak sustatuko dira talde horrek dituen ezen arabera, bai eta enplegurako orientabide-ekintzak ere, gizarteratzea ahalbidetzeko.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua lan-talde bat sortzea aztertzen ari da Presondegiko Gizarte Zerbitzuen, Nafarroako lurralde osoan zehar hedatzen diren udalekotutako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Institutuaren beraren arteko koordinazio-protokoloak ezartzeko.

Adierazitako erakundearen arteko eskuhartzea eta koordinazioa ezinbestekoa da pertsona horien bergizarteratze eraginkorra lortu nahi bada.

Bestalde, gizarte-arrisku edo -bartzetzeko egoeran dauden pertsonen zuzendutako ekintzak garatzen dira, bai eta bergizarteratu beharrekotzat sailkatutako pertsonen (zigorreko hirugarren mailan dauden presoak, baldintzapeko askatasunean dauden presoak eta preso-ohiak) zuzendutakoak

ere, helburu nagusia bergizarteratzea eta lan-munduratzeko izanik.

Jarduketa-sail hau Oinarrizko Errentaren Programan barne hartzen da nagusiki:

- Zuzeneko Prestazio Ekonomikoa.
- Gizarte Enplegu Babestua.
- Enpresetan Lan Munduratzeko.
- Lan Indibidualeko Proiektuak.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua, NUPeko Gizarte Laneko Departamentuaren lankidetzaz, geroko Gizarte Baztertzeko aurka Borrokatzeko Planaren oinarri izanen den Oinarrizko Errentaren Programaren ebaluazioa eta Azterketa-lkerketak bat egiten ari da.

3.- Zer epetan aurreikus daitezkeen eskumen horiek eskualdatzea, eta zer epetan aurreikus dai-

tekeen Nafarroako espetze berria errealitate bihurtuko dela?

2. galderaren erantzunean adierazi den bezala, gaur egun ez dago eskumen hori zein epetan hartuko den aurreikusterik, baina negoziazioak Espetze berriaren eraikuntza-fasean hasiko lirateke agian. Hitzarmena izenpetzeak proiektua egitea eta ezagutzea eskatuko du, eta proiektua bera eta obren esleipen-izapidea gauzatu ondoren zerbitzu hauek eskualdatzeko egutegia zehaztu ahal izanen da, eta Gobernu honek ahalik eta azkarren izatea nahiko luke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 12an

Lehendakaria eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

Etxabakoitz Iparreko osasun-egoerari buruz eta Barañaingo osasunetxea gainezka egoteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Etxabakoitz Iparreko osasun-egoerari buruz eta Barañaingo osasunetxea gainezka egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andreak galdera egin du Etxabakoitz Iparreko auzokideen osasun-arazoaren soluziobideari buruz eta Barañaingo Osasunetxea gainezka egoteari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Gaur egungo egoera:

1.- Azken urteotako hirigintza-hazkundearen ondorioz lehen ez zeuden hainbat etxebizitza sortu dira Etxabakoitz Iparrean; honela, bertan 1.843 pertsonen osatutako biztanleria biltzen da gaur, eta hurbileko geroan 3.000 pertsona inguru izatea espero da.

2.- Barañaingo biztanleriaren hazkundera (errolaren azken datuen arabera 18.936 biztanle lirateke eta TISEk eskaintzen dituen biztanleriari buruzko datuen arabera 20.500 pertsona, eta horietatik 19.500ek osasun-laguntzarako eskubi-dea dute). Hori guztiari lekualdatutako pertsonen osatutako zehaztu gabeko biztanleria gehitu behar zaio, kopuru horrek beste oinarrizko barrutietako batezbestekoa nabarmen gainditzen baitu, lan-karga handia eraginez.

3.- Araudiari dagokionez:

* Nafarroako Osasun Eskualdeen Legea: Lurraldearen antolamenduak ondoko Osasun Eskualde Oinarrizkoak egituratzen ditu:

– Barañain: Barañaingo udalerrria barne hartzen du.

– Zizur Etxabakoitz: Zizurko Cendea eta Iruñeko 12, 13 eta 14 atalak (Etxabakoitzeko Auzoa) barne hartzen ditu.

* Oinarrizko osasun-laguntzako mediku orokorra eta mediku pediatra libreki aukeratzeko eskubidea arautzen duen Foru Dekretua: “Medikuaren onarpen alde zuzena eta berriak behar da hiritarra aukeratzeko medikua jardunean dagoen udalerrian eta Eskualde Oinarrizkoan bizi ez denean”.

4.- Osasun-zaintza. Bi eskualdeak geografikoki mugakideak direnez eta kale bakar batek baino banatzen ez dituzenez, Etxabakoitz Iparreko biztanleriarentzat Barañaingo Osasunetxea bertara askoz errazago joateko modukoa da, zalantzarik gabe. Baina gaur egungo araudiaren arabera, Etxabakoitzeko Kontsultategia dagokie.

Arestian adierazitako azken urteotan Barañaingo udalerriak izandako hazkundearen ondorioz bertako Osasunetxea ez da nahikoa, dimentsio-arazoak direla-eta, dagokion biztanleriari arreta eskaintzeko, izan ere 12.000 eta 15.000 arteko biztanleriari arreta eskaintzeko planifikatuta baitzegoen. Hori dela-eta, gaur egun eskura dagoen baliabidearekin Etxabakoitz Iparreko biztanleriari (gaur egungoa eta gerokoa) ezin zaio Barañaingo Osasunetxean arretarik eskaini, erabat gainezka baitago, eta dagokion eskualdean espero diren hazkundeak kontuan izanda are gehiago egonen dela aurreikusi daiteke.

Osasun Departamentuak proposatutako alternatibak

Osasun Departamentuak Osasunetxe berria eraikitzea aurreikusten du; Osasunetxe honek Barañain eta Etxabakoitz Iparreko populazioei arreta eskainiko die, bi populazioetan sortutako arazoa egitura bakar batez konponduz.

Horretarako 1997an elkarrizketak izan genituen Barañaingo Udalarekin dagokion lursail edo lokalen emakidari buruz, eta duela gutxi bisitaldia egin da tokian bertan aukera errealek ezagutzeko. Gaur egun Osasunetxe berria kokatzeko alternatibak aztertzen ari dira, eta urte honetarako lursailaren edo lokalen ondareko emakida edo geroko Osasunetxearen proiektu arkitektonikoaren laneta aurreikusten da, gutxienez. Proiektua eta hirigintza-lizentzia onesteko izapideek hala uzten badute, obrak aurten bertan hasiko lirateke.

* Era berean, behin adierazitako proiektua zehazten denean, osasun eskualdeak aldatzeari ekitea ere aurreikusten da; honela, eta horrek dakarren gainezka egotea onartuz, gaur egungo osasunetxeak bi Eskualdeetako gaur egungo biztanleriari eta datorren urteetako espero den hazkundearen ondoriozkoari arreta eskaintzea bere gain hartuko du. Barañaingo biztanleriaren zati bat eta Etxabakoitz Iparrekoa barruti bakar batean behin-betiko bateratzea aurreikusita dago eta guztiei ere Osasunetxe berriaren zerbitzuak eskaintzea; honela biztanleriak bertara errazago joateko modua eta eskariaren arabera osasun-zerbitzu egokia izanen luke. Jakina denez, 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren gehigarritzako araudiaren arabera posiblea da Gobernuak Foru Dekretuaren bidez osasun-barrutiak inguruabar horiek direla-eta aldatzea, eta horrenbestez, Gobernuak –dagokion entzute- eta informazio-izapidearen ondoren– ildo horretan jardunen du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 2an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Espainiakako Estatutik kanpo diren Nafar Bilguneei ematen zaizkien dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak Espainiakako Estatutik kanpo diren Nafar Bilguneei ematen zaizkien dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñan, 1998ko otsailaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Espainiakako Estatutik kanpo diren Nafar Bilguneei eman zaizkien dirulaguntzei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein dira 1997ko Aurrekontutik dirulaguntza jaso duten Espainiakako Estatutik at dauden Nafar Bilgune edo "Centro Navarro" direlakoak?

– Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioa, Mendoza, Buenos Aires, Rosario, Mar del Plata eta Bolivar-ko Nafar Bilguneak bil-tzen dituen.

– Sud-ko Nafar Bilgunea (Mar del Plata, Argentinako Errepublika)

– Txileko Nafar Bilgunea

– Rosarioko Nafar Bilgunea

2. Zein dira eskariak egin dituzten Nafar Bilguneak eta noiz egin dituzte eskari horiek Nafar Gobernuaren Erregistroan, dirulaguntza jasotzeko?

Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioak, 1997ko maiatzaren 2an.

Sud-ko Nafar Bilguneak (Mar del Plata - Argentinako Errepublika), 1997ko maiatzaren 5ean.

Txileko Nafar Bilguneak, 1997ko maiatzaren 18an.

Rosarioko Nafar Bilguneak, 1997ko maiatzaren 26an.

Buenos Airesko Nafar Bilguneak, 1997ko maiatzaren 27an.

3. Zein helburu edo eginkizunarako eskatu dute dirulaguntza Nafar Bilgune edo "Centro Navarro" horiek?

– Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioak azaroaren 21, 22 eta 23an Mendozan ospatutako Argentinako Errepublikako nafar elkartearen Seiigarren Topaketaren antolamendugastuetarako.

– Sud-ko Nafar Bilguneak bere egoitzan hobekuntza-obra burutzeko.

– Txileko Nafar Bilguneak beren San Fermin festetako programazio artistikoaren barruan Jesus Roman soinu-jole jaunak 1997ko uztailaren 5ean eta 6an emandako ekitaldietarako.

– Rosarioko Nafar Bilguneak Angel Barricarte tenore nafarrak, Vicente Ariño piano-jolearen laguntzaz, emandako kontzertu artistikoa egiteko.

– Buenos Airesko Nafar Bilguneak gizarte eta kultur jarduera eta zabalkundeko jardueretarako, zorrak onbideratzeko eta egoitza hobetzeko inbertsioetarako.

4.- Zein izandu da datu ekonomikoetan 1997 urte osoan zehar apirilak 14ko 42/1997 zenbaki-dun Agindu Foralaren garapena eta bilakaera datu eta zenbaki ekonomikoetan?

Behin Foru Agindua onetsi eta kanpoan dauden Nafar Bilgune guztiei jakinarazi ondoren, ondoko erakundeek eginiko eskabideak jaso ziren eskabideak aurkezteko epearen barruan:

– Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioarena Mendozan Nafar Elkartearen Seiigarren Topaketa ospatzeko.

– Sud-ko Nafar Bilgunearena, Mar del Platan duen egoitzaren obra finantzatzeko.

– Txileko Nafar Bilgunearena, Jesús Román Ecay soinu-jolearen bidaia finantzatzeko.

– Rosarioko Nafar Bilgunearena, Angel Barricarte nafar tenoreak eta Vicente Ariño piano-joleak kontzertu liriko bat eskaintzeko bidaia finantzatzeko.

– Buenos Airesko Nafar Bilgunearena, gizarte eta kultur jarduera eta zabalkundeko jardueretara-

ko, zorrak onbideratzeko eta egoitza hobetzeko inbertsioetarako.

Deialdi honen ebazpena honela egin zen:

– Lehendakartzako Idazkari Nagusiaren 1997ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez, Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioari 4.000.000 pezetako dirulaguntza eman zitzaion Argentinako Errepublikako Nafar Elkartearen Seigarren Topaketaren antolamendu-gastuak finantzatzeko. Dirulaguntzaren % 50 alde aurretik ordaindu zen eta gainerakoa, izandako gastuak dokumentu bidez justifikatu ondoren, Topaketak egin ondoren, emakida Ebazpenak jasotzen duen bezala.

– Lehendakartzako Idazkari Nagusiaren 1997ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez, 600.000 pezetako dirulaguntza eman zitzaion Sud-ko Nafar Bilguneari (Mar del Plata - Argentina) Mar del Platan duen egoitzako hobekuntza-obra finantzatzeko. Ordaintzeke dago, Bilguneak oraindik ez baititu eginiko gastua justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu.

– Lehendakartzako Idazkari Nagusiaren 1997ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez, Txileko eta Rosarioko (Argentina) Nafar Bilguneekiko lankidetzahitzarmena onetsi zen, eta Jesus Roman Ecay soinu-jole jaunaren joan-etorriko gastuak eta ekitaldiak onetsi ziren (Txilen eta Rosarion uztailearen 1 eta 15 artean izandakoak), 336.000 pezetako zenbatekoz. Uztailean ordaindu ziren.

– Lehendakartzako Idazkari Nagusiaren 1997ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioari 700.000 pezetako dirulaguntza eman

zitzaion, Nafar Elkartearen Seigarren Topaketaren gastuak finantzatzeko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez onetsitako lau milioikoaren osagarria. Jatorrizko fakturen aurkezpenaren bidez ordaindu zen, Topaketak ospatu ondoren, emakida Ebazpenean jasotzen den bezala.

5.- Zein dira Nafar Bilgune edo "Centro Navarra" horietako bakoitzari zehazki eman zaizkion edo/eta agindu zaizkion dirulaguntzen kopuruak?

– Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioa: 4.700.000 pezeta.

– Sud-ko Nafar Bilgunea: 600.000 pezeta (ordaintzeke)

– Txileko Nafar Bilgunea: 336.000 pezeta

– Rosarioko Nafar Bilgunea: 275.000 pezeta

6.- Zein dira dirulaguntza jaso duten Nafar Bilgune bakoitzaren ordezkaria?

– Argentinako Errepublikako Nafar Bilguneen Federazioa: Presidente, Atilio Dominguez jauna.

– Sud-ko Nafar Bilgunea: Presidente, Oscar Esparza jauna

– Txileko Nafar Bilgunea: Presidente, Juan Arraztoa Elustondo jauna.

– Rosarioko Nafar Bilgunea: Presidente, Teofilo Espadas jauna.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñan, 1998ko otsailaren 12an

Lehendakartza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain